

# EUROPAR BATASUNA: AGENDA OLIBA-BERDEA ETA DIGITALA ENPRESA TRANSNAZIONALEN ZERBITZURA

*NGEU FUNTSEK HEGO EUSKAL HERRIAN DUTEN  
INPAKTUAREN AZTERKETA (2020-2024)*



· Gorka Martija Rodrigo ·  
· Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate ·



---

**Egileak:** Gorka Martija Rodrigo eta Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate

**Itzulpena:** Iñigo Gallastegi

**Diseinua eta azala:** Iñaki Landa

**Argitalpen data:** 2024ko maiatza

---

**Lizentzia:** Argitalpen hau lizentzia baten pean dago Aitortu - Ez komertziala – Partekatu lizentzia berberarekin 3.0 Creative Commons Espainia. Lizentzia honen kopia bat ikusteko, bisitatu: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/eu>

# AURKIBIDEA

## SARRERA

### 1. EBren GAUR EGUNGO AGENDA:

#### KAPITALISMO OLIBA-BERDEA ETA DIGITALA BIZKORTZEA. 8

**1.1. Kanpo agenda: enpresak blindatzea, gerrako erregimena eta neokolonialismoa 9**

**1.2. Barne agenda: herstura, prekarietatea eta megaproiektuak. 14**

### 2. NGEU PROGRAMAREN ERRADIOGRAFIA:

#### ARLO PUBLIKOAREN HARRAPAKETA KORPORATIBOA 21

**2.1. Europako funtsen helburuak eta lehentasunak 21**

**2.2. Gobernantza zentralizatuko eredua 27**

**2.3. Onuradun nagusiak: enpresa transnazionalak 31**

### 3. NGEU PROGRAMA HEGO EUSKAL HERRIAN:

#### KONTRARREFORMAK, ZORRA ETA BOTERE KORPORATIBOA 37

**3.1. NGEU programaren “Bermudetako triangelua” 37**

**3.2. Kontrarreformak 38**

3.2.1. Lan erreforma 38

3.2.2. Pentsioen erreforma 41

3.2.3. Zerga erreforma 44

3.2.4. Kontratazio publikoaren eta diru-laguntzen erreforma 46

**3.3. Zorra 47**

**3.4. Enpresa transnazionalak, megaproiektuak, burbuilak 50**

3.4.1. Enpresa onuradunak HEHn 50

3.4.2. Inbertsioak, megaproiektuak eta burbuilak HEHn 54

3.4.2.1. Automobilgintza eta mugikortasun jasangarria 56

3.4.2.2. Hidrogenoa 59

3.4.2.3. Energia berriztagarriak 60

3.4.2.4. Zaintza-lanak 62

3.4.2.5. Aeronautika 63

3.4.2.6. Nekazaritza industria 63

3.4.2.7. Ura 64

#### 4. ONDORIOAK 66



## SARRERA

2019an Europako Itun Berdea argitaratu zenetik, Europar Batasunak (EB) agenda berria sustatu du. *Next Generation EU* (NGEU) programa da agenda hura gauzatzeko tresna nagusietako bat. Pandemiaren shockak matrize ekonomikoaren eraldaketa berde eta digitalaren aldeko apustua bizkortu zuen, suspertzearen ardatz gisa. Hala, NGEU programa agenda horren garapenaren mugarri mediatiko bilakatu zen.

Hura, bada, gaur egungo erronka globalei aurre egiteko gai omen da, eta horretarako digitalizazioa eta energia berriztagarriak premia eta modu masiboan garatuko omen ditu. Arlo horietan, inbertsio publikoak, Partzuergo Publiko-Pribatuek (PPP) eta konponbide teknologikoen lehentasuna izango dute azken batean, baina horien barruan ez da gaur egungo sistemaren ezaugarri nagusien eraldaketa sakonik ikusten; izan ere, kapital metaketa zibilizazio-printzipio gisa hartzen du, merkatu globalak lehentasunezko eremu gisa, enpresa transnazionalak protagonista gisa, eta megaproiektuak tresna eztabaidaezin gisa.

Esparru horretan, NGEU programa hazkunde ekonomikoaren, deskarbonizazioaren eta berdintasunaren aldeko ahaleginak batzeko tresna gisa diseinatu zen –ustez, win-win logika batekin eta inolako kontraesanik gabe–. Horretarako, funts kantitate ikaragarria inbertitu zen honako sektore hauetan: energia eolikoa, fotovoltaikoa, hidrogenoa, erdiekoaleak, mugikortasun jasagarria, hondamendiak arintzea, eraikinak berriztatzea, datu-zentroak,

adimen artifiziala, zerbitzu ziberfisikoak, 5G sareak, eta abar.

Eremu horien inguruan egindako inbertsioek eta sortutako PPPek merkatu-hobi globalak atzemateko balio behar zuten, eta, horren bitartez, Europak AEBen eta Txinaren aldean zuen atzerapen teknologikoa eta ekonomikoa konpondu nahi zuten. Hori gutxi balitz, agenda berri hura biraketa bat zen aurrekoetan aplikatutako herstura-politikekin alderatuta. Izan ere, horien kontrara, arautzeko, birbanatzeko eta sektore publikoak ekonomian parte hartzeko izaera duten politika neokeynestarrak sustatzen zituen.

Hala ere, Europako agenda berdearen eta digitalaren errealitatea kontakizun ofizialetik urrun dago. Hain zuzen ere, ez da bizi dugun dimentsio anitzeko krisi sakona konpontzen ari; are gehiago, horren garapena bizkortzen du: hazkundeak gelditu jarraitzen du (atzeraldia eta estanflazioa bezalako kontzeptuak nagusitzen dira), klima-aldaketak aurrera egiten du neurri gabe (2023an 1,48° igo dira, eta Europa hondamendi naturalen ondoriozko kalte gehien jasan duten eskualdeetako bat izan da), esparru komuna gero eta gehiago desegiten ari da, eta eskuin-muturra eta neofaxismoak beren eragina handitzen ari dira.

Aldi berean, European indarrean dagoen agendak modu arriskutsuan xaxatzen du gero eta ezegonkorragoa den esparru politiko globala: AEBen eta Txinaren arteko lehia geopolitikoa larriagotzen da, eta EB amerikarren gerra-



estrategiaren jarraitzaile zintzoa da; gerra-erregimena zabaltzen ari da, eta Ukraina eta Palestina horren elementu zentral bilakatu dira; hornigai estrategikoen gainean ofentsiba neokolonial berri bat hedatzen ari da, ekonomia berde berriaren mesederako, batez ere, energia fosilari eta metalen meatzaritzari dagokienez; azkenik, prekaritatea eta gatazka ekosozialak handitzen ari dira, irabazi-tasa berreskuratzeko helburuak duen lehentasunaren ondorioz.

Agenda ofizialaren “*B alde*” hori haren tresna guztietara eramaten da, baita NGEU programara ere. Hala, programaren benetako izaerak ez du zerikusirik behin eta berriro aurkeztu diguten irudiarekin: egindako ahalegin ekonomikoa eta politikoa ez da hain garrantzitsua izan, beste potentzia batzuek emandako laguntzekin alderatuta; trantsizio gozoaren *win-win* kontakizunak leher egin du, gatazka militarrek gora egiten duten bitartean; programaren garapena, ustez premiazkoa eta estrategikoa, opakua eta geldoa da praktikan; azkenik, programa gauzatzeko, funts publiko masiboak ematen zaizkie enpresa handiei, eta balizko biraketa neokeynestarra lausotzen da, botere korporatiboa esparru komunaren aurka mantentzeko ahalegin etsi-etsian.

Azken finean, NGEU programa “Bermudetako triangelu” moduko baten antzera karakteriza dezakegu; izan ere, matrize ekonomikoa eraldatu beharrean, itsaso zakar batean sartzen gaitu, eta horretan, honako elementu hauek aurkitzen ditugu: lehenik, kontrarreforma sozialak (lan-arlokoa, pentsioena, fiskala, kontratazio publikokoa), bigarrenik, hersturaren aldeko presioa indartzen duen zorraren

hazkundera, eta, hirugarrenik, bideragarritasun zalantzarria duten inbertsio korporatiboen esparrua. Esparru horretan bateratzen dira, batetik, ekimen interesgarriak, eta, bestetik, burbuilak, birmoldaketa ezkutuak, azpiegitura fosila kapitalizatzeko ahalegin etsiak edota diru-laguntzak atzemateko ariketak.

NGEU programari buruzko ikuskera hori badugu, ez da bakarrik tresna hura diseinatu zenean egin ziren ohartarazpenengatik<sup>1</sup>, baizik eta lau urte geroago hura nola inplementatu den ikusten dugulako. Beraz, honako hau une egokia da bai tresna bera bai atzean duen agenda ebaluatzeko. Eta ebaluazio hori, gainera, tresnak Hego Euskal Herrian (HEH) izan duen eraginaren arabera egingo dugu, orain arte egin ez den bezala.

Batez ere, kontuan hartuta Espainiako Estatuak, Italiarekin batera, NGEU programaren onuradun nagusietako bat izan dela, eta HEHko elite ekonomiko eta politikoei beso-zabalik hartu zutela Europako agenda berria. Izan ere, matrize ekonomikoa parametro global berrietan kokatzeko palanka izango zen hura, eta, hala, elite horien ideologia berri bilakatu zen<sup>2</sup>.

Premisa horietan oinarrituta, honako txosten hau hiru zatitan egituratu dugu. Lehenengoan, Europako agenda labur aztertuko dugu, bai kanporako proiektioari bai kontinente zaharrean izan duen aurrerakadari dagokienez. Azkenik, bada, trantsiziorako estrategia izateko ahalmenik ez duela ondorioztatuko dugu. Bigarrenean,

1. Euskal Herriak Kapitalari Planto! (2021): [Fondos europeos de recuperación: una huida hacia adelante verde y digital](#)

2. Fernández eta Martija (2021): [Euskadi Next 21-26, la nueva ideología del capitalismo vasco](#), naiz.info.

NGEU programaren zer, nor eta nola aztertuko dugu. Orain arte izan duen inplementazioa ikusiko dugu eta izaera kontinuista duela frogatuko dugu. Azkenik, hirugarrenean Hego Euskal Herrian izan duen eragina aztertuko dugu, eta horretarako, lagundutako erakunde, esparru eta megaproiektu nagusiei erreparatuko diegu. Hala, trantsizioko kontakizunaren azpian helburu bideraezin eta eutsiezin bat ezkutatzeko duela frogatuko dugu, botere korporatiboaren aldekoa.

Laburbilduz, Europaren gaur egungo agendaren erradiografia sintetikoa eskaintzen dugu, eta horren lehentasunak eta tresnak erakusten ditugu. Horrela, trantsizio ekosozialaren erronka estrategikoari eta premia-koari aurre egiteko baliabideak eskaini nahi ditugu, hura bai ala bai izango baita. Eta trantsizio horrek ez ditu eliteen diskurtsoa, agenda eta praktika onartzen, horiek baitira EBren gaur egungo politika sostengatzen dutenak.



# 1. EBren GAUR EGUNGO AGENDA: KAPITALISMO OLIBA-BERDEA ETA DIGITALA BIZKORTZEA

Bakea, askatasunak eta gisa eskubideak hasieratik egon dira EBren proiektuaren inguruan dagoen irajinarioran. Mundu gerra berriak ekiditea eta “Estatu soziala eta zuzenbide Estatu” ahalik eta gehien garatzea izan dira bermeetan eta berdintasunean oinarritutako eredu horren ezaugarriak.

Haren jarduerak, aldiz, kontrako egoera batera garamatza. Azken hiru hamarkadetan, EBk modu sistematikoa aplikatu du agenda korporatiboa, merkantilista eta lehiakortasunaren aldekoa<sup>3</sup>: herstura, nekazaritza industriaren aldeko Nekazaritza Politika Bateratua, soldata-debaluazioa, Estatuaren aurrekontuen kontrola, bankuen erreskateak, zorra ordaintzeko lehentasuna eta xantaia, merkataritzako itunak sinatzeko ofentsiba gogorra, estraktibismo koloniala, migrazioen nekropolitika... Horiek definitzen dute, azken batean, proiektuaren identitatea.

Aipatutako agenda, beraz, intentsitate demokratiko baxuko arkitektura bati esker sostengatzen da, Europako Batzordeak eta Kontseiluak gero eta eskumen eksklusibo gehiagotan erabakitzeko ahalmenean oinarritzen dena –koerabakitzeko sistemarekin Europarlamentuko esparru batzuetarako-. Gainera, “euro-sistemaren” hegemonia ekonomikoak arkitektura hori biribiltzen du, eta, oro har, jokatzeko aukerak dogma neoliberalera mugatzen ditu: moneta bakarra, defizitaren eta zor publikoaren mugatzea Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren (EHI) bitartez, Europako Banku Zentralaren autonomia inflazioaren aurkako borrokan zentratzeko eta, azkenik, garrantzi espezifiko gutxiko aurrekontu komunitarioa.

Agenda eta arkitektura neoliberal hainbat hitzarmenen bitartez erroto dira europar proiektuan (Maastricht 1992, Amsterdam 1996, Niza 2000 eta Lisboa 2009). Horrela, konstituzio-maila ematen diote, eta, ondorioz, blindaje ia erasoezin bat eskaintzen diote.

Hala ere, pandemiaren ondorioz sustatutako estrategia berde eta digital berriak, itxuraz, zalantzan jarri du europar proiektuaren segida neoliberal hori (agenda-arkitektura-itunak), eta biraketa bat izan omen da horren arabera bultzatzen diren politiketan.

Beraz, alde batetik, “esparru berdea” lehiakortasunaren, merkatuen eta botere korporatiboaren aldeko apustu baten beharrezko ardatz gisa hartzeko premia dagoela onartuko luke estrategia berriak. Bestetik, neoliberalismoaren aplikazio dogmatikoak dituen gabeziak inplizituki onartuko lituzke

3. Fernández (2021): [La UE acaba con la Europa de los valores](#). Hemen eskuragarri: CTXT.es.



(gainontzeko potentziak malguagoak izan dira, beren mesederako). Eta ondorioz, inbertsio publikoko esparru bat proposatuko luke eta aurrekontu komunitarioa handitzeko, zor komuna mutualizatzeko eta Egonkortasun eta Hazkunde Ituna<sup>4</sup> denbora baterako eteteko borondate bat adieraziko luke.

Kapitulu honetan modu laburrean aztertuko ditugu indarrean dagoen agendaren kanpo eta barne politikaren ezaugarriak. Hala, ondorioztatuko dugunez, ez da biraketa politikorik; aitzitik, bizi dugun dimentsio anitzeko krisi sakonak eta AEBekiko eta Txinarekiko atzerapen tekno-ekonomiko nabariak eragin duten testuingurura moldatzeko ahalegin epel eta berandua besterik ez da. Fenomeno bi horiek zenbait marra gorri gainditzera behartu dute, aldi baterako bada ere, europar proiektua eta bere identitatea salbatu nahian. Aldi berean, ez dute onartzen etengabeko hazkundera, merkatuen hegemonia eta enpresa transnazionalen protagonismoa direla gaur egungo krisiaren jatorria.

Moldatze epel eta berantiar hura ez da eraginkorra izaten ari; alderantziz, ekaitz perfekturako ibilia bizkortzen ari da<sup>5</sup>, izan ere, batzen dira, besteak beste, geldirik dagoen hazkundera, zorpetze masiboa, klima-aldaketa bizia, energiaren eta materia kritikoen agortze argia, hedatzen ari den gerra erregimena eta proposamen neofaxisten aurrerakada.

Zentzu horretan, “kapitalismo oliba-berdea eta digitala” aipatzen dugu, Europaren gaur egungo agendaren benetako erreferentzia gisa. Karakterizazio horren bitartez, kapitalismoaren eta inbertsio berdeen eta digitalen eskoramendua nabarmendu nahi dugu, baita EBk gatazka militarren ugaritzean duen erantzukizuna ere. Beraz, “olib-berde” koloreak “berde berriztagarriak” baino hobeto erakusten du kapitalismo horren estrategiaren izaera.

## 1.1. Kanpo agenda: enpresak blindatzea, gerrako erregimena eta neokolonialismoa

EBren gaur egungo kanpoko agenda lehentasunezko hiru jarduera-ildo osagarrien garapenean oinarritzen da. Lehenenik, bere diskurtsoaren eta praktika politikoaren militarizazioa. Hala, gerra erregimen bat sostengatzen du, AEBen estrategia belizistaren eskutik; izan ere, AEBek ez dute munduko nagusitasuna galdu nahi Txinaren alde. Bigarrenik, merkataritza- eta inbertsio-hitzarmenak ditugu, interes korporatiboak blindatzeko eta hazkunde handiena duten herrialdeen merkatuetara sartzeko. Eta azkenik, Europak ez dituen hornigaiak –energia fosila eta mineral metalikoak– eskuratzea, formula diplomatiko, politiko edota militarren bitartez; izan ere, horiek estrategikoak dira ekonomia berriaren merkatu hobietara heltzeko.

4. Horren arabera, defizit publikoak ezin du herrialdearen BPGaren % 3 gainditu, eta zor publikoak ezin du horren % 60 gainditu.

5. Fernández eta Hernández (2022): [La Unión Europea en la tormenta perfecta](https://www.elsaltodiario.com), [elsaltodiario.com](https://www.elsaltodiario.com).

### 1. taula: EBren kanpoko agendaren lehentasunak

Logika sekuritarioa: Militarizazioa eta gerra-erregimena
Logika ekonomikoa: Merkataritza- eta inbertsio-itunak
Logika ekonomikoa: Horniduretarako sarbide neokoloniala

Iturria: Egileak

Lehenengo jarduera-ildoari dagokionez, EBren politikaren ezaugarri nagusiak dira AEBen aginduekiko menpekotasuna –eta ondorioz NATOren aginduekiko ere– eta gero eta belizismo handiagoa.

EBk bere botere ekonomikoa (munduko merkaturik handiena da) eta geostrategikoa (Eurasiaren parte da, lurralde giltzarria Mackinder-en teoriaren arabera<sup>6</sup>) baliarazi beharrian, eta AEBen eta Txinaren arteko borroka orekatu beharrian, jarrera bat hartu du: orain Txina da “erronka estrategikoa”, eta, ondorioz, EBk harekin sinatzeko zuen Inbertsio Ituna (CAI, ingelesezko siglen arabera) bertan behera utzi du 2021etik. Beraz, AEBen strategiaren konplize bilakatu da. AEBek beren rol inperiala mantendu nahi dute nola edo hala, eta horretarako behar dituzten gatazka guztiak xaxatuko dituzte, Ekialdea isolatzeko eta europar atlantismoa blindatzeko.

Gerrako erregimenak bere hegala zabaltzen ditu, Europaren parte-hartze ukaezin eta esplizituarekin. Nazioarteko harremanetan erabat nagusitzen da lagun-etsai logika, giza eskubideen esparruaren gainetik, eta Europaren kontakizuna eta praktika politikoa blaitzen du.

Lehenik, makineria mediatikoak eta politikoak mezu belizistekin bonbardatzen ditu herritarrak modu hegemonikoan. Macronen proposamena soldaduak Ukrainara bidaltzeko, Suediako presidentek egindako adierazpena, gatazka armatu baterako herritarrak psikologikoki prestatzeko beharri buruzkoa, edo Errusiak bost edo hamar urtera EBren lurraldea inbadituko duelako hipotesiak –nahiz eta funts gutxiko teoriak diren–... Horiek gizartearen eta politikaren militarizazioan erabat zentratutako estrategia elikatzen dute.

Bigarrenik, nazioarteko gatazka espiral bat xaxatzen dute, gaur egungo armategi nuklearra kontuan hartuta oso ondorio larriak izan ditzakeena. Kapitalismoak betidanik eragin izan dituen liskarrak gorabehera –hain sistema desperekoa izateagatik–, azken 80 urteetan parekorik izan ez duen eskalada

---

6. Halford John Mackinder-en teoriak eurasiar kontinente handiaren garrantzia geopolitikoa eta ekonomikoa nabarmentzen du. Autoreak “Heartland” deitzen dio lurralde horri. Zentzu horretan, honako hau dio: “Ekialdeko Europan gobernatzen duenak Heartland menperatuko du; Heartland gobernatzen duenak Mundu-Irla menperatuko du; Mundu-Irla gobernatzen duenak mundu osoa kontrolatuko du”.

beliko batean murgildua gaude gaur egun: Ukrainako gerrak<sup>7</sup>, Gazako genozidioak<sup>8</sup> eta Taiwanen inguruan piztu daitekeen gatazkak hirukote arriskutsua osatzen dute, “gerrako domino” bat, eta EBk, eginez edo ez eginez, gogoz laguntzen du horretan.

Hirugarrenik eta azkenik, agenda belizistak ekintza politiko eta ekonomiko osoa zeharkatzen du. Zentzu horretan, oso adierazgarria da gobernantza ekonomikoko eredu berriaren baitan defentsa hiru lehentasunetako bat izatea –esparru berdearekin eta digitalarekin batera–, geroago aztertuko dugun bezala. Ildo horretan ere, 2024ko martxoan, “Europaren defentsa-estrategia industrial” (EDIS, ingelesezko siglen arabera)<sup>9</sup> aurkeztu zen. Haren diru-hornidura 1.500 eurokoa da, segurtasunaren eta defentsaren sektoreko transnazionalen mesederako. Beraz, dinamika militarista akuilatzen du, eta krisi ekonomiko larriari irteera emateko aukera gisa irudikatzen du ere. Botere korporatiboak, bada, bat egiten du estrategia horrekin, eta bere etorkizuna kausa belizistarekin lotzen du, partzuergo publiko-privatuen bitartez. Ondorioz, espiral belizistaren erritmoa eta indarra esponentzialki bizkortzen dute.

Gerra, EBren ezinbesteko laguntzaz, bakea bilatzeari gailentzen zaio, eta unilateralismoa mundu multipolarrarari.

Logika sekuritarioa ekonomikoaren aurretik jartzearen ondorioz, Europaren kanpoko agendan lehentasuneko bigarren ildo bat ere garatzen da; hain zuzen ere, merkataritza eta inbertsio itunak ezartzea. Horren bitartez, EBk nazioarteko merkatuetan duen menpeko egoera irauli nahi du. Bere jarduera ekonomiko makalak eta gainerako potentzien aldean duen atzerapenak horrelako akordioak sutsu sinatzera bultzatzen dute Europar Batasuna. Hala, beste lurralde batzuetako hazkunde erlatiboa ahalik eta gehien banpirizatzen saiatzen da, bere enpresen mesederako.

EB, ondorioz, arlo horretako eragile nagusia da nazioartean; izan ere, AEBek eta Txinak, antza denez, akordio sektorial eta/edo espezifikagoak lehenetsi dituzte.

Agenda berrienari dagokionez, 2023ko azaroan EBk akordio bat berretsi zuen Zeelanda Berriarekin, makineriaren, automozioaren eta nekazaritzaren sektoreetarako garrantzitsua dena. Elkarrizketa aurreratua omen ditu Kenyarekin eta Angolarekin, horiek Afrikako kontinentean duten kokapen geostrategikoagatik. Aldi berean, gauzatzearen omen daude Txilerekin duen elkartasuna eguneratzeko negoziazioak, hura funtsezko herrialdea baita metalen meatzaritzari eta hidrogenoari dagokienez.

7. Bateragarria da Errusiaren inbasioa gaitzestea eta AEBek eta EBk gatazka sustatu dutela eta konponbide diplomatikoa saihesti dutela salatzea. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus: Martija (2022): “[Hoy como ayer, ¡guerra a la guerra!](#)”, CTXT.es.

8. Bereziki tamalgarria da EBk Gazako genozidioari emandako erantzun hipokrita; izan ere, Errusiari ezarritako zigor-erregimenaren guztiz kontrakoa da. Lagun-etsai logika batean oinarritutako erantzuna da, Israel funtsezko lurraldea baita “India-Ekialde Hurbila-Europa Korridore Ekonomikoan” (IMEC, ingelesezko siglen arabera). Proiektu hura Txinak bultzatutako Zetaren Bidearen edo Zerrendaren aurrean nagusitzea da EBren helburua, Eurasia kontrolatzeko lehian. Europaren erantzunak, beraz, ez ikusia egiten dio genozidioari. Hori argi ikusi zen Batzordeko presidente Von der Leyenek Israel bisitatu zuenean, 2023ko urrian, eraso sionista bete-betean.

9. EB (2024): [Estrategia industrial europea de defensa](#).

Australiarekiko akordioari, bestalde, bultzada nabarmena eman diote. Hura 2024aren amaieran berrestea espero da, eta funtsezkoa da hornigai berde eta digitaletarako eta baita nekazaritzarako ere. Aldi berean, Mexikorekin duen elkarte eguneratzeko elkarrizketak aurrera doaz, baina energiaren gaiak *impasse* batean kokatzen du behin betiko onarpena. Beste alde batetik, Indiarekiko elkarrizketak abiadura hartu du. Hura munduko merkaturik handiena da eta alternatiba bat izan daiteke Txinak Asian duen hegemoniaren aurrean. Premisa horretan oinarrituta, Japoniarekin, Indonesiarekin eta Thailandiarekin ere hitzarmenak sinatzea aurreikusten da. Bestalde, 2024ko martxoan plazaratu da Egiptorekin lortutako akordio “estrategiko eta integrala”, laguntza ekonomikoen truk muga-zaintzaren externalizazioa barneratzen duena, eta etorkizunera begira inbertsio- eta merkataritza-esparrutan negoziaketak aurreikusten dituen, bereziki hidrogeno berriztagarrian fokoa bereziki jarrita.

Azkenik, EB-Mercosur hitzarmena, antza, geldirik geratu da nekazarietako eta nekazaritza industriak 2024ko otsailean egindako mobilizazioen ondorioz. Beraz, 20 urtez negoziatzen egon ondoren, akordioak lur jo omen du. Hala ere, Mercosurek garrantzia estrategikoa du litioari, nekazaritza industriari eta erosketari publikoari dagokienez, eta, horren ondorioz, izan daiteke etorkizunean aukera berri bat sortzea.

## 2. taula: EBren agenda, merkataritza eta inbertsio itunei dagokienez

Zeelanda Berria (2023an berretsia)
Kenya eta Angola (elkarrizketen hasiera)
Txile (eguneratzeko negoziazio aurreratuak)
Australia (negoziazio aurreratuak)
Mexiko (eguneratzeko negoziazioak)
India (negoziazioak)
Japonia (negoziazioak)
Indonesia (negoziazioak)
Thailandia (negoziazioak)
Egipto (negoziazioak)
Mercosur (negoziazioak)

Iturria: Egileak

Ezin dugu ahaztu itun horiek galdagarritasun eta justiziabilitate handiko printzipio juridiko batzuk ezartzen dituztela (inbertsioen segurtasun juridikoa, tratu nazionala, merkatuetarako sarbidea, etab.), eskubidek beherantz “arautzeko konbergentzia” egiturak sortzen dituztela inplikaturako herrialdeen artean, eta, batez ere, arbitraje-auzitegiak ezartzen dituztela korporazioen eta estatuen arteko liskarrak

ebazteko (lehenengok soilik salatu dezakete, inoiz ez bigarrenek). Hala, justizia pribatizatzen dute itunen eragin-eremu gero eta gehiagotan (jabetza intelektuala, merkataritza digitala, ondasun naturalak, etab.).

Hortaz, itunak interes korporatiboak blindatzeko tresnak dira, eta horien aldeko araudi sendoak garatzen dituzte. Aldi berean, eta aipatu dugun bezala, horiek periferiako eta erdi-periferiako herrialdeei zuzendutako esplotazio- eta desjabetze-tresna neokolonial gisa ere ikus daitezke; izan ere, negoziazioetan botere-asimetria izugarriak daude.

Ildo neokolonial horretatik doa EBren kanpo agendaren lehentasunezko hirugarren estrategia ere. Izan ere, energia fosilerako eta metalen meatzaritzarako sarbidea bermatzeko premiak NGEU programaren trantsizio-formatu atsegina lehertu egin du, eta hornigai estrategikoak eskuratzeko dinamika koloniala larriagotu du.

Ukrainako gerrak eta Errusiari ezarritako zigorrek akabatu egin dute energia iturriak pixkanaka ordeztzeko win-win kontakizuna. Errusiar gasarekiko menpekotasuna murriztea eta eskaera beste bide batzuetatik betetzeko interkonexio- eta metatze-egiturak sortzea lehentasun bilakatu dira. Hala, orain, RepowerEU<sup>10</sup> da EBren politika energetikoa ordezkatzeko duena, eta ez NGEU. Beraz, ikuspegi berdeak indarrean jarraitzen badu ere, indarra galtzen du, batez ere fosila eta nuklearra den kontakizun batean; eta “oliba-berdez” tindatzen da Sahelen edo Qatar bezalako herrialdeekin gas naturalaren inguruan hartutako akordioetan.

Aldi berean, EBk litioa, lur arraroak, kobaltoa, kobrea eta abar eskuratzeko formula espezifikoak bultzatzen ditu, merkataritza eta inbertsio itunekin batera.

*Global Gateway* programa nabarmendu nahi dugu bereziki. Horren bitartez EBk “sektore digitalean, energetikoan eta garraioan lotura inteligenteak, garbiak eta seguruak sustatzeko europar estrategia zabaldu” nahi du, “baita mundu osoan osasun, hezkuntza eta ikerketa sistemak indartzeko ere”. Horretara bideratutako diru publikoaren zenbatekoa 45.000 milioi eurokoa da – horietatik, 300.000 PPP logikan mobilizatzen saiatzen dira-. Azken batean, diru hori megaproiektuak sustatzeko bidea bat da, hau da, estrategia neokoloniala munduan legitimatzeko plan moduko bat.

Era berean, garrantzitsua da Batzordeak “*lehengai kritiko*en club” bat sortzeko bultzatutako ekimena. Hura Mendebaldeak eta haren aliatuek besterik ez dute osatzen, eta bere helburu esplizitua, nagusi den lagun-etsai logikaren barruan, Txina bere rol hegemonikoan ordezkatzeko da, ez soilik funtsezko mineralen, lur arraroen, litioaren, kobaltoaren eta abarren erauzketan, baizik eta horien prozesamenduan ere.

---

10. Europako Batzordea (2022): [RepowerEU](#).



Azkenik, EB izaera sektorialeko aliantzak sinatzen ahalegintzen da. Horiek Elkar Ulertzeko Memorandumetan zehazten dira: lehengaiak Txilerekin –litioa nabarmentzen da–; energia berriztagarriak Argentinarekin eta Uruguarekin; hidrogenoa Alemania eta Kolonbiaren artean; hidrogenoa, bateriak eta lehengaiak Kazakhstanekin; oinarritzko lehengaiak Groenlandiarekin; akordioa Ruandarekin Kongoko Errepublika Demokratikoko mineralen harrapakaritzan sartzeko, eta abar. Modu osagarrian, merkataritza eta inbertsio itun berriek, hain zuzen 2015etik aurrerakoek, energiari eta lehengai buruzko kapitulu bat dute, sarbide kolonialaren eta enpresak blindatzearen logika indartuz.

Hau da, kanpo politikan EBk uko egiten dio bere sorreran eragin omen zuen rola betetzeari; hain zuzen ere, bakeari eta giza eskubideei dagokiona. Militarismo gero eta handiagoak eta AEBen eta NATOren “atlantismoaren” inguruan duen jarrera alderdikoia gatazka espirala zirikatzen dute, Txina erreferente negatibo gisa hartuz<sup>11</sup>, eta ez dakigu zeintzuk izango diren horren ondorioak.

Ekonomia logika sekuritarioaren arabera estutzen duen esparru horretan, EBren lehentasunak beste lurralde batzuetako hazkundera eta hornigaiak bere mesederako banpirizatzean dautza, eta, hala, matrize koloniala eguneratzen eta indartzen du.

Azkenik, kanpoko agendak NGEU programaren kontakizun atsegina, berdea eta berriztagarria desestaltzen du, eta kontrako zentzuan posizionatzen du RepowerEU planak erakusten duen nagusitasun fosila.

## 1.2. Barne agenda: herstura, prekarietatea eta megaproiektuak

Barne agenda, funtsean, europar proiektuaren izaera korporatiboarekin bat dator. Proiektua definitzen duten hiru ideia nagusi nabarmentzen ditugu. Lehenik, termino makroekonomikoetan, ustezko biraketa neokeynestarra dugu. Hura, azken batean, testuinguru berri batera moldatzeko ahalegin epel

11. Txinak badaki egoera pribilegiatua duela hobi berde eta digital gehienetan (plaka fotovoltaikoak, ibilgailu elektrikoak, bateriak, 5G sareak, etab.). Arlo geopolitikoari dagokionez, eta bere posizioarekin bat, esparru multilateral eta multipolar baten alde egiten du ekonomian oinarritutako nazioarteko harremanak garatzeko, baldintza politikorik gabe. Arlo militarrean, Shanghaiko Lankidetzarako Erakundea (SLE) indartzen du. Hura 2001ean sortu zen, eta NATOri aurre egiteko sustatutako egitura da, Asiako eskualdeko segurtasun-eremu gisa. Ekonomia arloan, nazioarteko estrategia eta barne merkatua indartzeko lehentasuna uztertzen ditu, eta inbertsio berdeak eta digitalak mantentzen ditu –petrolio, gasa eta ikatza barne, horiek agendaren parte baitira–, baita tokiko enpresak laguntzeko eta babesteko politikak ere. Izan daiteke, esplizituki kapitalista den esparru global batean, Txinak bere pribilegio-gunea lortu du, ez merkatuaren dogmari jarraituz, baizik eta, hain zuzen ere, ez jarraituz: plangintza, zuzendaritza ekonomikoa erabaki enpresarial indibidualetatik banatuta egotea, BPGaren % 40 kapitalistak ez diren korporazietatik etortzearen garrantzia. Horiek, agian, asiar erraldoi horren bilakaera azaltzen lagun dezakete. Aitzitik, AEBen garrantzi militarra askoz handiagoa da, dolarrak nazioarteko dibisa gisa duen eginkizuna hegemonikoa da, eta Txinaren hegemonia kultural globala ezin da mendebaldeko-amerikarrarekin alderatu.

eta berandua besterik ez da, eta testuinguru berri horrek ez du, inondik inora, hersturara itzultzeko aukera ekiditen.

Bigarrenik, lehenetsitako inbertsioek izaera erratikoa eta desparekoa dute, eta botere korporatiboa indartzen dute esparru komunaren aurka, prekarietatea hedatuz. Beraz, ez dute beren helburuak betetzeko aukerarik.

Azkenik, mota guztietako megaproiektuak ugaritzeko eta lotzeko apustua egiten dute, eta gatazka ekosozialak sustatzen dituzte, identitate kapitalista bermatzen duen eredu batean barruan.

### 3. taula: EBren barneko agendaren lehentasunak

Egokitzapen epela eta berandua, herstura indartzeko etorkizun batekin
Apustu estrategikoen izaera okerra eta desparekoa
Gatazka ekosozialak

Iturria: Egileak

Eskala makroekonomikotik hasita, ezin da ukatu 2020an piztutako pandemiari emandako erantzunak izaera hedakorra izan zuela; ez, ordea, 2008ko krisiari emandakoak, hark ikuspegi murriztailea baitzuen. Pandemian, diru-kopuru handiak bideratu ziren ekonomia suspertzera eta eraldatzera; batez ere enpresa handiei zuzenduak, baina, neurri txikiago batean, COVIDaren kalteak gehien jasaten ari ziren Estatuei ere. Hala, NGEU programa prozesu horren tresnetako bat izan zen; EBren aurrekontu-esparrua ia % 50 zabaldu zen (hura BPGren % 1 ingurukoa izaten zen); zorra mutualizatu zen (lehen, marra gorria zen hori), ahalegin hedakor hori ordaintzeko; eta EHia aldi baterako eten zen, hain zuzen, 2020tik 2023ra<sup>12</sup>.

Hala ere, agenda berriak ez dakar, gure ustez, egiturazko aldaketarik; europar proiektuaren ezaugarriak testuinguru berri batera egokitu besterik ez du egiten<sup>13</sup>.

Lehenik, aplikatutako politika hedakorrak enpresa transnazionalen zerbitzura jarraitzen du, horiek baitira momentu berriaren erabateko protagonistak. Bigarrenik, krisi sakonak eta AEBekiko eta Txinarekiko atzerapenak dogmatismo neoliberalarekin haustera behartzen du Europa. Hala, Europar Batasuna bere korporazio handien porrota ekiditeko mobilizatzen da; porrot horrek behin betiko hondatu baitezake proiektu kontinentalak. Hirugarrenik, EBren logikak diziplinamendu makroekonomikoaren eta kontrarreforma sozialak egitearen baldintzapean eman ditu beti bere dirulaguntzak, NGEUren kasuan ere aztertuko dugun bezala.

12. Euskal Herriak Kapitalari Planto! (2021): [Fondos europeos de recuperación: una huída hacia adelante verde y digital](#).

13. Álvarez eta Fernández (2021): [“We are all keynesian now?”](#), naiz.info.

Adierazpen hori frogatzeko, nahikoa da 2023an hartutako erabakiak ikustea. Alde batetik, inflazioa handitzean –hura nagusiki eskaintzari eta espekulazioari lotuta badago ere– Europako Banku Zentralak interes-tasak igotzeko ohiko politika murriztaileak ezarri ditu, gaur egungo % 4,5era arte. Ondorioz, ekonomia hoztu du, estanflazio-egoera indartu du eta langileen interesak kaltetu ditu.

Bestetik, EHIaren alde baterako etenarekin amaituko du 2024tik aurrera, nahiz eta 2025etik aurrera aplikatuko den Gobernantza Ekonomikoaren Erreformari buruzko eztabaidak berrikuntzak ekarriko dituen. Horrek, defizita eta zor publikoa mugatzearen hegemonia ekarriko du berriro, gobernantza ekonomikoko formulen bitartez<sup>14</sup>.

Zentzu horretan, defizitaren % 3a eta zorraren % 60a itzultzen dira, horren oinarri gisa. “Haran urte” honetan, arreta berezia eskainiko zaio defizitaren segimenduari, baina zorrari eskaintako arreta ez da epe ertainean jaitsiko, batez ere Espainiako Estatua bezalako herrialdeetarako; izan ere, hark % 90 gainditzen du, eta EBk “oso altutzat” jotzen du ehuneko hori.

Murrizketa horiek betearaztean egindako aurrerapenen segimendua –horiek berdin aplikatzen dira oso ekonomia desberdinetan– gutxienez lau urterako diseinatutako Plan Fiskal eta Estrukturalen bitartez egingo da herrialde mailan. Europako Batzordeak eta Kontseiluak murrizketen tutoretzaz arduratuko dira Europako Seihilekoaren esparruan. Gainera, horien onarpena erreformei eta inbertsioei buruzko “gomendioen” zehaztasunaren menpe egongo da. Esparru horretan, beraz, funtsezkoa da lehen mailako gastu garbia<sup>15</sup> ezin dela BPGren hazkundearen ehunekoa baino handiagoa izan. Hala, aurrekontuek lehentasuna eman behar diete inbertsio berdeei, digitalei eta defentsa arlokoiei –lehen aztertu dugun militarizazio politiko, sozial eta ekonomikoarekin bat–.

Hau da, ikuspegi murriztailea ez da inoiz joan, beti egon da hemen, baina testuinguru kritiko batera moldatu da: inflazioa, gastua mugatzea, defizita eta zor publikoa murriztea helburu gisa; esparru berdea, digitala eta militarra lehentasun gisa; arkitektura korporatiboak europar proiektuari tutoretza ematea, bere menpe mantentzeko berme gisa.

Beraz, badirudi sektore publikoaren eraispena eta gizarte politiken herstura ezohiko indarrez itzultzen direla, batez ere atzeraldikoa eta estanflaziokoa izan daitekeen testuinguru batean

Hersturaren aldeko gobernantza ekonomikoko esparru hori, gainera, proiektio gutxiko apustu estrategikoen bitartez indartzen da. Horixe da EBren barneko agenda definitzen duten ideia nagusietako bigarrena.

14. ELA eta Manu Robles-Arangiz Fundazioa (2023): [Reforma del marco de gobernanza económica europeo: vuelven las políticas de austeridad](#), Estudios 47, ELA SINDIKATUA.

15. Kontzeptu horrek kanpoan uzten ditu diru-sarreraren, interesen ordainketaren eta langabezia ziklikoko gastuaren arloetako hautazko neurriak.

Pandemiak eragindako shockak testuinguru egokia eman zuen gaur egungo kapitalizazio-eremu nagusietan (eguzki-panelak, ibilgailu elektrikoa, datuen jabetza eta sistematizazioa, adimen artifiziala, 5G sareak, erdieroaleak, etab.) Europak duen atzerapen nabarmenari etsi-etsian erantzuteko. Fenomeno horrek nabarmen eragin du Europako ekonomiak garrantzi globala galtzeko eta etengabe pobretzeko.

Horren aurrean, EBk inbertsio publikoan eta PPPetan zentratutako hainbat plan, estrategia eta lege sustatu egin ditu –hurrengo taulan laburbilduta– bere botere korporatiboa indartzeko eta babesteko, oso modu asimetrikoan bada ere<sup>16</sup>. Hori da EBren ekonomiaren nazioarteko menpotasun egoera iraultzeko aukeratutako bide nagusia. Izan ere, hala, balio-kate nagusietan dauden hobietara sartzea lortzen du.

#### 4. taula: EBren politika berde eta digital nagusiak

Europako Itun Berdea
55. Helburua
Next Generation EU Plana
RepowerEU
Hidrogenoaren Europako Estrategia
Energia Sistema Integrazteko Estrategia
Europako Itun Berdearen Industria Plana
Net-Zero Industria Legea
Defentsa Industriaren Europako Estrategia
Lehengai kritikoen Legea
Energia berriztagarrien Araudia eta Direktiba
Global Gateway

Iturria: Egileak

Dogma neoliberalak merkatuek baliabideak modu perfektuan banatzen dituztelako fedean oinarritzen da. Baina zalantzarik da, dogma hura baztertuta eta protekzionismo handiagoko esparru batean, enpresa eta sektore jakinetan inbertitzeak arrakasta izango duen<sup>17</sup>. Gainera, egindako apustuak ez dira agian espero diren hobiak bereganatzeko gai izango, eta ondorio ekosozial negatiboak eragiten dituzte ekosistemetan eta Europako langileengan.

16. EBren laguntzez harago, Estatuaren laguntzak jasotzeko aukera ireki da kasu jakinetan. Praktikan, herrialde kideen gaitasun ekonomiko desberdinek inbertsioen eta diru-laguntzen eremuko desparekotasunak larriagotzen dituzte.


17. Horretarako, ikus Crónica Vasca hedabidean Ekaitz Cancelari egindako elkarrizketa: **“El mercado es una guerra y la Unión Europea ya ha perdido”**.

Zentzu horretan, lobby korporatiboen presioz egindako apustu horiek ez dituzte agian epe ertain eta luzeko errentagarritasun-espektatibak betetzen, eta, horrela izatekoan, ezin izango dituzte kapital-metaketa, inbertsio, enplegu edo kontsumo dinamikak mantendu.

Aitzitik, hidrogenoa, ibilgailu elektrikoa edo parke eolikoak eta fotovoltaikoak funtsezko sektoreak dira EBrentzat, aeronautikarekin eta, oro har, segurtasun eta defentsa sektorearekin batera. Baina badirudi lehentasun horiek epe laburreko xede bati erantzuten diotela: funts publikoak espekulaziora bideratzea (berriztagarrien booma), azpiegitura fosilak birmoldatzea eta kapitalizatzea (ez da harritzekoa hidrogenoaren atzean gas-korporazioak egotea, beren ondarearen bizitza luzatzeko helburuz), edo hiltzeko zorian dauden sektoreak birmoldatzea (adibidez, automozioa). Eta hori guztia benetako burbuilak ezkututzen dituen kontakizun berde eta kosmopolita baten azpian.

Apustu horien emaitza ekonomikoa baloratzeko goiz bada ere, ideia hau baieztatzen dute: EBk atzeraldia saihestu zuen 2023an –beste herrialde batzuek ez bezala–, baina Nazioarteko Diru Funtsek 2024rako egiten dituen aurreikuspenak ez dira onak. Izan ere, horien arabera, BPG % 1,2 haziko da, hau da, mundu mailako ehunekorik txikiena.

### 1. irudia: 2023rako hazkunde aurreikuspenak



Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa



Hazkunde ihar horrek metaketa dinamikari dagokionez esan nahi duena alde batera utzita –are gehiago, hersturazko etorkizun batekin–, EBk sustatzen duen kapitalismo oliba-berde eta digital horrek oso ondorio kaltegarriak ditu. Esate baterako, klima-aldaketak aurrera jarraitzen du, eta energia iturriak aldatu beharren, berriztagarriak energia fosilei gehitzen zaizkie; izaera kolonialeko presio estraktibista areagotzen da –aurreko atalean ikusi dugun bezala–, ekonomia berriak behar dituen energia eta materialak kopuru handiak emateko; digitalizazioari lotutako enpleguaren prekarizazioa larriagotzen da; eta zelataritza sozialeko eta protestaren kriminalizazioko sistema bat indartzen da, eskubide indibidual eta kolektiboen aurka.

Azkenik, lehentasun esparru horren oinarrian dagoen ikuspegiak tresna estrategikotzat jotzen ditu megaproiektuak. Hala, nazioarteko merkatuei buruzko gogoeta sozialak eta ekologikoak ukatzen dira, balio-kate globaletako akats gero eta ugariagoak ahazten dira, eta pandemiako ikaspenei –bizitza nork eta nola mantentzen duen– ezikusia egiten zaie. Ondorioz, mota guztietako megaproiektuak ugaritzeko eta lotzeko interesa handitzen da, nahiz eta horiek bakarrik enpresa transnazionalen esku dauden.

Megaparkerke fofovoltaikoak eta eolikoak, zentral hidroelektrikoak, makroetxalde agroindustrialak, meatzaritza ekimenak, bateria fabrikak, hidrogenotegiak, korridore industrialak, hidrokarburu proiektu berriak, autobide elektrikoak, gasbideak, ubideak, azpiegiturak eta abar. Horiek guztiek “megaproiektu lurralde” bilakatzen dute Europa, eta fenomenoak ez da herrialde periferiko edo erdi-periferikoetan soilik kokatzen –edo ez batez ere horietan kokatzen–.

Megaproiektuen aurrean dagoen barrurako irekierak lotura zuzena du munduko klima geopolitiko eta ekonomiko asaldatuarekin. Izan ere, klimak horrek energiaren eta materialen “autonomia estrategikoa” bermatzeko beharra indartzen du, eta, ondorioz, eremu propioa ere erabiltzen da hori lortzeko. Beraz, ofentsiba korporatiboari bide emango dion araudi berria sortzen da.

Zentzu horretan, berriki onartutako bi lege nabarmendu nahi ditugu. Alde batetik Funtsezko Lehengaien Legea (2023) dugu. Hura Europako Itun berdearen industria-planaren barruan kokatzen da, eta interes publiko gorenekotzat jotzen diren funtsezko lehengaien hornidura dibertsifikatzeko eta horiek eskuratzeko aukera handitzeko helburua du –batez ere metalen meatzaritzari dagokionez–. Horretarako, bada, lehengai horien urteko kontsumoaren % 10 gutxienez EBtik etorri behar dela ezartzen du; eraldaketaren % 40 gutxienez EBn egin behar da; % 15 birziklapenetik etorri behar da; eta, azkenik, lehengai estrategiko baten % 65 baino gehiago ezin da hornitzaile bakar batetik etorri.

Bestetik, eta modu osagarrian, oso garrantzitsua da Energia Berriztagarriei buruzko Direktiba eta Araudia (2023). Direktibak azpiegitura energetiko horiek instalatzeko egokiak diren lur- eta itsas-eremuak zehaztera behartzen ditu Estatuak, eta instalazio horietarako prozedura administratibo eta judizialak errazten ditu, baldin eta proiektuak interes publiko gorenekotzat jotzen badira. Araudiak, bere aldetik, aldi baterako larrialdiko arauak ezartzen ditu energia berriztagarriak ekoizteko baimenak bizkortzeko, eta lehentasuna ematen dio erabilera energetikoari beste edozeinen aurrean

–nekazaritzaren aurrean ere–, betiere kontserbazio-neurri egokiak hartzen badira edo kaltetutako lurraldearen egoera leheneratzen bada. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitetik ere salbuets daitezke, Estatuak instalazio horietarako egokitzat jotzen badu lurralderen bat.

Laburbilduz, megaproiektuei dagokienez, ofentsiba ekonomikoarekin batera ofentsiba politiko-juridiko bat ikusten da. Hala, enpresa handien ekimen korporatiboei lotutako gatazka ekosozialak larriagotzen dira; izan ere, ekimen horien helburua kapitalaren metaketa da, beste edozer gauzaren gainetik. Beraz, negozio-hobiak bilatzen dituzte merkatu globaletan, horretarako lurraldeak eta ondasun naturalak desjabetuz, eta sistematikoki kaltegarriak diren inpaktuak eragiten dituzte<sup>18</sup>.

Ondorio gisa, esan dezakegu EBren kanpo eta barne agenda oso koherenteak direla elkarrekiko eta atzean duten europar proiektuarekiko: botere korporatiboa indartzea da beren erabateko lehentasuna.

Beraz, agenda berria ustezko trantsizioaren kontakizun bat eskaintzeko ahalegin etsia besterik ez da, gaur egungo ekaitz perfektuaren erantzukizunak estaltzeko eta benetako trantsizio ekosoziala garatzeko beharrezkoak diren eraldaketa sakonak ekiditeko. Alderantziz, “trantsiziorik eza” sustatuko du, hau da, ekidin behar dugun hondamendira garamatzan kapitalismo oliba-berdea eta digitala.

---

18. Fernández, González, Hernández eta Ramiro (2022): Megaproyectos: claves de análisis y resistencia en el capitalismo verde y digital, Cuadernos OMAL.

## 2. NGEU PROGRAMAREN ERRADIOGRAFIA: ARLO PUBLIKOAREN HARRAPAKETA KORPORATIBOA

Bigarren kapituluan, NGEU programaren funtsezko elementuak aurkezten saiatuko gara, funtsezko hiru gako hauek gaineratik karakterizatuz: *zer* (helburuak eta lehentasunak), *nola* (gobernantza) eta *nor* (onuradun nagusiak).

### 2.1. Europako funtsen helburuak eta lehentasunak

NGEU funtsak, lehen aipatu dugun bezala, EBren oinarritzko erantzunetako bat dira kontinentearen matrize ekonomikoaren eraldaketa sendotzeko, pandemiak eragindako shocka baliatuz. Horiek PPP logikan oinarritutako inbertsio publikoko programa zabalean kokatzen dira, eta Europako erkidegoaren instantzietatik sustatzen dira zuzenean.

Kontakizun ofizialaz harago, hiru helburu aipatzen ditugu ezaugarri gisa.

#### 5 taula. NGEUren benetako helburuak

Merkatu-hobi berdeak eta digitalak bereganatzea mundu mailan (energia, mugikortasuna, digitalizazioa, 5G, etab.).
Proiektu desarrollista zaharrei bultzada bat ematea, berrikuntza irudi berri baten bitartez (azpiegiturak eta megaproiektuak).
Krisi sakonean dauden sektoreetako enpresa handiak erreskatatzea (automobilgintza, aeronautika, turismoa, eraikuntza, etab.).

Iturria: Egileak

Helburu-esparru horrekin, NGEU helburu espezifiko desberdinak dituzten hainbat programak osatzen dute.

## 6. taula. NGEU programa

· <b>Errekuperazio eta erresilientzia mekanismoa (EEM):</b> Eraldaketa produktibo berde eta digitala
· <b>React EU:</b> Europako lurraldeen kohesioa
· <b>Bidezko trantsiziorako funtsak:</b> Neutraltasun klimatikora igarotzea
· <b>Landa Garapeneko Programa (FEADER):</b> Landa garapen orekatua
· <b>Invest EU:</b> Inbertsioak sektore estrategikoetan
· <b>Horizon EU:</b> Ikerketa eta berrikuntza
· <b>Resc EU:</b> Babes zibila eta laguntza humanitarioa

Iturria: Egileak

Programa nagusia EEM programa da. Hura da gehien aipatzen duguna NGEUari buruz ari garenean; izan ere, aurrekontuaren zati izugarria hartzen du eta programaren ezaugarri nagusiari buruzko ikuspegi espezifikoak du: merkatu hobi berdeak eta digitalak bereganatzea. Horrek programari dagozkion plangintza estrategikoak zeharkatzen ditu maila guztietan, Europa mailan, estatu mailan eta maila autonomikoan<sup>19</sup>, inbertsio aukerak zehaztuz<sup>20</sup>.

## 7. taula. Adierazleak, palankak, NGEU osagaiak

Gutxieneko adierazleak		
Klima % 37	Digitalizazioa % 20	Biodibertsitatea % 10
EB “flagship”-ak		
3 trantsizio energetikoa	3 digitalizazioa	1 lanbide-heziketa
<i>España Puede</i> planaren palankak		
Hiriko eta landako agenda eta despopulazioaren aurkako borroka	Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko ituna eta Osasun Sistema Nazionala indartzea	
Azpiegiturak eta ekosistema erresilienteak	Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena	
Trantsizio energetiko bidezkoa eta inklusiboa	Zaintzen ekonomia berria eta enplegu politikak	
XXI. menderako administrazioa	Kultura eta kirol industria bultzatzea	

19. NGEU plangintza estrategikoei buruz ari garenean honako hauei buruz ari gara: *España Puede* plana estatu mailan; *Euskadi Next 2021-26* plana EAEko mailan; eta Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) *Nafarroa Suspertu 2020-23* legegintzaldiko plana eta *Nafarroa Green* eta *Estrategia Digital Navarra 2030* sektore planak.

20. Ez dugu NFE koadroan sartu ez duelako NGEU estrategia komunitatean bateratzen duen *ad hoc* plangintza estrategikorik.

Gure enpresen ekosistema modernizatzea eta digitalizatzea	Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta iraunkor baten alde
<i>Euskadi Next</i> planaren osagaiak	
Pertsonen osasuna eta zaintza	Bizitzan zeharreko ikaskuntza
Energia berriztagarrien ekoizpena	Mugikortasun jasangarria
Administrazioen, enpresen eta balio-kateen digitalizazioa eta berrikuntza	Habitat urbanoa
Habitat naturala eta hondamendi naturalen prebentzioa	Ekonomia zirkularra

Iturria: Egileak

HEH mailan, horren emaitza da NGEU programaren helburu diren sektore, ekimen eta megaproiektu espezifikoek erabateko lehentasuna ematen zaiela.

EAEn, *Euskadi Next* planak honako helburu hauek izan ditu 2021etik: hidrogeno berdearen balio-kate globaletan sartzea (Hidrogenoaren Euskal Korridorea BH2C, 1.300 milioi €; IBERLYZER 80,4 milioi); ibilgailu elektrikoaren industriarako baterien eskalatzeko industria (Basquevolt Gigafactory, 882 milioi; Polo Mubil, 156 milioi); digitalizazioa (Basque Digital Water, 543 milioi, Smart Food Country 4.0, 171 milioi); elektrizitatea banatzeko sareen eraldaketa digitala, 489 milioi); proiektu eolikoak (Aixeindar. Euskal Autonomia Erkidegoan 2025erako garapen eolikorako jarduketara-plana, 270 milioi); energia berriztagarrien eta hidrogenoaren saiakuntzarako eta garapen teknologikorako *offshore* azpiegiturak, 60 milioi; eoliko flotatzaileko Hub industriala eta teknologikoa, 40 milioi); osasun eta zaintza zerbitzu pribatuak (Isardnat 353,1 milioi; Osasunberri, 199 milioi; Project GANTT, 130 milioi; Adinberri, 105 milioi; Etxetic, 56,5 milioi), 5G sarea Euskadin zabaltzea (65 milioi) eta aliantza publiko-pribatuko logika baten bitartez berrikuntza-zentroak ugaritzea (Automobilgintzako fabrikazio aurreratuko zentroa: industria 4.0, 30 milioi; Araba Health Intelligence Center, 75 milioi; Nagusi Intelligence Center, 17,4 milioi; Energy Intelligence Center, 39,8 milioi; Bizkaia dorrea, 39 milioi)<sup>21</sup>.

Merkatu globaletan hobi berriak bilatzearekin batera, esparru desarrollista eta erreskatekoa onartzen da: sektore aeronautikoaren birmoldaketa (Propaero / Propulsio aeronautikoa, 190,4 milioi), nekazaritza-industria (Akuikultura ekoizpeneko lurreko parkea Basordasen, 105 milioi. 2023an bertan behera geratu zen), edo azpiegiturak (Industria-lurzoruari balioa ematea, birsortzeko eta proiektu estrategikoak kokatzeko, 885 milioi). AHTa bezalako megaproiektu historikoak ere *Euskadi Next* planean sartu ziren, baina gero formalki kendu zituzten.

21. Euskal Herriak Kapitalari Planto! (2021): **Fondos europeos de recuperación: una huida hacia adelante verde y digital**, 19.



### 8. taula. Euskadi Next 2021-26 planaren lehentasunak

Hidrogenoa
Ibilgailu elektrikoek bateriak
Digitalizazioa
Energia eolikoa
Osasun eta zaintza zerbitzu pribatuak
5G
Berrikuntza zentroak
Aeronautika
Nekazaritza-industria
Azpiegiturak

Iturria: Egileak

*Nafarroa Suspertu* planak, bestalde, lotura du *Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia* (S3) delakoarekin. Horretan, bada, NGEU funtsen arloan inplikazioak dituzten zenbait esparru nabarmentzen dira. Zentzu horretan, hasieratik potentziala duten lurraldeko sektoreen aldeko apustu argia dago.

### 9. taula. Nafarroako S3 Estrategiaren esparruak

Automobilgintza eta mekatronika
Elikadura Katea
Energia Berriztagarriak eta baliabideak
Osasuna
Turismo Integrala
Sorkuntzako industriak eta industria digitalak

Iturria: Egileak

Ikuspegi hori *Nafarroa Green* planean lehenetsitako sektoreetan eta ekimenetan ere gauzatzen da. Zeharkako sektore ekonomikoei (adibidez, eraikuntza) lotutako esku-hartzeek gain, honelako proiektu estrategikoak nabarmentzen dira: elektrizitatea iturri berriztagarrietatik sortzeko parkeen hedapena, teknologia eoliko modular estandarra, makrobaterien instalazio industrialak, hidrogeno berdea, mugikortasun elektrikoan *battery pack* delakoak muntatzeko instalazioa, *Naitec* proiektua

(Nafarroako automobilgintza ibilgailu elektrikora eraldatzeko azpiegitura osagarriak), nekazaritza ekoizpeneko sistemaren modernizazioa (ureztatzeak modernizatzea), ekonomia zirkularreko instalazio industrialak, hondakinen kudeaketa, eta abar.

Azkenik, Legegintzaldiko Planaren zentraltasunak identitate hori indartzen du, eta patina berdea eta digitala eman nahi die aurretik zeuden proiektuei, NGEU programaren orbitan sartu ahal izateko.

### 10. taula. *Nafarroa Susperitu* planaren lehentasunezko proiektuak

Nafarroako Kanalaren bigarren fasea (220,9 milioi)
AHT (74,8 milioi)
Arraigo funts publiko-pribatua (32 eta 107 milioi)
Epe luzeko zaintzetako berrikuntza (53,8 milioi)

Iturria: ELA (2021): [Los fondos europeos traerán más recortes a Navarra](#)

Helburuen eta esparru estrategikoen lehentasun hura naturaltasunez adierazten da NGEU programa gauzatzeko tresnen esparruan. Aztertutako plangintzek NGEU definitzen duten hiru helburuen gaineko ikuspegi integralagoa bazuten, Espainiako Estatuak dituen tresna nagusien eginkizuna espezifikagoa da.

Hori horrela da batez ere Ekonomia Suspertzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoen (ESEPE) kasuan. ESEPEak apustu estrategiko nagusiak bultzatzeko aukeratutako tresna dira, eta Ministroen Kontseiluak aukeratzen eta onartzen ditu zuzenean.

Oso exekuzio zentralizatua dute, eta eskala handieneko megaproiektuak eta ekimenak hartzen dituzte (bai fisikoki bai inbertsio bolumenari dagokionez). Gainera, partzuergo publiko-pribatu handiak garatzera bideratzen dira.

2023ko azaroan, 12 dira *España Puede* planaren bitartez abiarazi diren ESEPEak, 41.183 milioi euroko aurrekontuarekin<sup>22</sup>. Aurrekontu-bolumenen aldaketek, exekuzioaren bilakaeraren arabera, arlo aeroespazialeko, berriztagarrien arloko, uraren digitalizazioko edota osasuneko ESEPEen proiektzioa erakusten dute, besteak beste.

22. Espainiako Gobernuak (2023): [IV Informe de Ejecución del Plan de Recuperación](#), 12.

## 11. taula. 2023ko azaroan indarrean dauden ESEPEak

<p><b>Ibilgailu elektrikoa eta konektatua (IEK) garatzeko ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2021eko uztailaren 13an onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 4.120 milioi € (4.295 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Abangoardiako osasunerako ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2021eko azaroaren 30ean onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 1.640 milioi € (982 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Energia berriztagarrien, hidrogeno berriztagarriaren eta biltegitratzearen (EBHB) ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2021eko abenduaren 4an onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 10.797 milioi € (6.920 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Nekazaritzako elikagaien ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2022ko otsailaren 8an onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 1.357 milioi € (1.003 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Hizkuntzaren ekonomia berriaren ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2022ko martxoaren 1ean onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 725 milioi € (1.100 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Ekonomia zirkularraren ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2022ko martxoaren 8an onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 792 milioi € (492 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Ontzigitzarako ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2022ko martxoaren 15ean onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 150 milioi € (2.193 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>ESEPE Aeroespaziala</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2022ko martxoaren 22an onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 931 milioi € (310 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Uraren zikloaren digitalizatzeko ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2022ko martxoaren 22an onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 3.485 milioi € (1.940 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Mikroelektronikaren eta erdieroaleen ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2022ko maiatzaren 24an onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 12.250 milioi € (12.250 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Ekonomia sozialaren eta zaintzen ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2022ko maiatzaren 31n onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 1.766 milioi € (808 milioi 2022ko azaroan)</li> </ul>
<p><b>Deskarbonizazio industrialaren ESEPEa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ministroen Kontseiluak 2022ko abenduaren 22an onartua</li> <li>• Aurreikusitako aurrekontua: 3.170 milioi € (3.100 milioi 2022ko abenduan)</li> </ul>

Iturria: Egileak<sup>23</sup>

23. Honako hauek hartu ditugu erreferentziatzat: IV Informe de Ejecución del Plan de Recuperación eta Bayas, Begiristain, González, Guiteras, Pérez eta Orozco (2022): **PERTE: Cómo la inversión pública socava la transición ecofeminista**, XXK, ODG, OMAL, ESF.

Beraz, esan dezakegu NGEU programak lehenetsitako helburuek, esparruek eta sektoreek asmo bera dutela, bai Europan duten diseinuari, bai Estatu mailako definizioari eta bai HEHko erakundeek funtsak eskatzeari dagokienez; alegia, merkatu-hobi berdeak eta digitalak bereganatzea, sektore estrategikoak birmoldatzea eta, azken finean, desarrollismoa bultzatzen jarraitzea, 4.0 eta iraunkortasun patina batekin.

## 2.2. Gobernantza zentralizatuko eredua

Europako Batzordea NGEUren sustatzaile nagusia da. Berak proposatzen, aplikatzen eta arautzen du zer inbertsio eta erreforma aurkeztu behar diren Estatuak eskatzen dituzten transferentziak eta kredituak jasotzeko. Gainera ordainketak gainbegiratzen eta onartzen ditu, eta horiek blokeatzeko ahalmena du Estatuko planaren edo Europako orientazioen arabera exekutatzeko ari ez direla uste badu<sup>24</sup>. Bigarren maila batean, Europako Kontseilua dugu. Hark ere herrialde bati zuzendutako transferentziak geldi ditzake, herrialdeak gehiegizko defizita zuzentzeko neurri nahikoak hartzen ez baditu.

**Estatu mailan**, gobernu zentralak dira plan horien elaborazioa eta exekuzioa monopolizatzen dutenak, baina Batzordearen eta Kontseiluaren ikuskapenaren menpe daude<sup>25</sup>.

### 12. taula. Espainiako Estatu Errekuperazio eta Erresilientzia Mekanismoaren gobernantza

Ministerio arteko Batzordea	Erabaki organo gorena da. Gobernuko presidentea du buru.
Batzorde teknikoa	Ministerio arteko Batzordeari aholkularitza ematen dio. Goi mailako funtzionarioek eta, batzuetan, sektore pribatuko ordezkariak osatzen dute.
Jarraipen unitatea	<i>España Puede</i> planaren exekuzioaren jarraipena egiten du. Presidentetza Kabineteko Kontu Ekonomikoetarako Sailaren zuzendaria da unitatearen arduraduna. Ekonomia Ministroarekin, Hazienda Ministroarekin eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministroarekin koordinatzen du lana.

24. Horixe da Italiaren kasua; 2023ko martxoan, eskatutako hirugarren zatiaren ordainketa ukatu zioten aldi baterako. Espainiako Estatuaren beraren kasua ere bada; izan ere, 2024ko apirilean parlamentuak ez zuen langabeziako sorospeneren erreforma onartu.

25. Kasu honetan, *España Puede* plana eta dagokion **araudia**.

EEMaren arduraduna	Erreferentziako figura da Europako erakundeentzat inbertsioen eta erreformen garapenari dagokionez.  Hazienda Ministerioko Europako Funtzen Idazkaritza Nagusiari dagokio.
EEMa kontrolatzeko arduraduna	Kudeaketa finantzarioko kontrol eta auditoretza sistema bat ezartzen du.  Estatuko Administrazioaren Esku-hartzailera Nagusiari dagokio.
Goi mailako foro sektorialak	Administrazioak enpresa-sektoreari kontsulta egiteko eremua da.
Autonomia erkidegoekiko biltzar sektorialak	Funtzen lurraldekako banaketa Hazienda Ministerioaren eta Autonomia Erkidegoetako ordezkarien artean adosteko eremua da.
Parte hartzeko foroa	Espainiako Gobernuaren eta patronaleko eta sindikatu nagusietako ordezkarien artean funtsei buruz informatzeko eremua.

Iturria: González eta Ramiro (2022): *Análisis de los fondos Next Generation EU, OMAL-Paz con Dignidad*

Batzordea-Estatuak bikote hori da NGEUren gobernantzaz arduratzen dena, eta gainontzeko eragile instituzionalen eta herritarren rola erabat marjinala da.

Zentzu horretan, ez autonomia erkidegoek ez udalek ez dute erabakitze ahalmenik, eta horien ekarpen nagusia plan espezifikoaren inguruko lehentasunak ezartzea eta horiekin gobernu zentralari presionatzea da. Gobernuak iradokizun horiek onartuko ditu edo ez, beti aukeraz.

Hala, autonomia erkidegoek bakarrik dute ordezkari organikoa erabat subsidiarioa den erakunde batean, hain zuzen, autonomia erkidegoekiko biltzar sektorialetan. Horren ondorioz, presio dinamikak sortu dira, hala nola “iparraldeko lobby” delakoa. Hura Euskadik, Galiziak, Asturiasek eta Kantabriak osatzen dute, Urkullu lehendakaria buru dutela, eta *España Puede* planaren gobernantzan eragin nahi du, bere interes publiko-korporatiboetatik (kasu honetan, ikuspegi atlantiko batekin).

Nolanahi ere, autonomia erkidegoek egitura eta ardura espezifikoak sartu dituzte beren organigrametan, NGEU programari zuzenean edo zeharka dagokion guztia kudeatzeko eta inplementatzeko.

### 13. taula. NGEU programa EAeko eta NFEko administrazioetan

Eusko Jaurlaritzak	Nafarroako Gobernua
<p>Ekonomia eta Hazienda Saila (Pedro Aspiazu)</p> <p>↓</p> <p>Ekonomiako eta Europako Funtsetako Sailburuordetza (Iñaki Barredo)</p> <p>↓</p> <p>Kohesio Politikaren eta Europako Funtzen Zuzendaritza (Juan Alberdi)</p>	<p>Ekonomia eta Hazienda Saila (José Luis Arasti)</p> <p>↓</p> <p>Ekonomia - Next Generation Zuzendaritza Nagusia (Julio Cifrián Ruiz de Alda)</p> <p>↓</p> <p>Ekonomia eta Finantza Zerbitzua Suspertze Planaren Koordinazioaren eta Kontabilitate Nazionalaren Zerbitzua</p>

Iturria: Egileak<sup>26</sup>

Esplizituki zentralizatutako gobernantzaren premisen arabera, autonomia-erkidegoek hiru kanalez osatutako inbertsio-esparru mugatua dute<sup>27</sup>:

- Estatuko Administrazio Orokorraren diru-laguntza deialdietan eta lizitazioetan parte hartu bitartez.
- ESEPEetan parte hartu bitartez.
- Biltzar Sektorialen, kontzesio zuzeneko Errege Dekretuen, ebazpen eta hitzarmenen eta abarren bitartez.

ESEPEei dagokienez, 2023ko bigarren seihilekoan, Eusko Jaurlaritzak, patronalaren eskutik, presio nabarmena egin du<sup>28</sup> funtsen exekuzioaren deszentralizazioaren alde. Izan ere, eskualde mailako ESEPEaren figura sortzeko eskatu du<sup>29</sup>, baina Espainiako Gobernuak ez du hura onartu.

26. Erakunde biek 2020-23 aldian izandako organigramak aurkezten ditugu. Horiek aldatuko ziren agian hauteskunde prozesuen ondorioz, hala nola EAEn 2024ko apirilaren 21an ospatutakoaren ondoren.

27. Espainiako Gobernua (2023ko azaroa): **IV Informe de Ejecución del Plan de Recuperación**, 47.

28. Pedro Aspiazu sailburuak "Euskadi Next: PERTE Erregionalaren euskal proposamena" deitutakoaren **aurkezpen formala** egin zuen 2023ko abenduaren 11n, Tamara Yague **Confebaskeko presidentearekin** eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako patronaletako ordezkariekin batera.

29. **ESEPEen esparruko 1.047 milioi euroren kudeaketa zuzena EAeko gobernuari transferitzea eskatzen zuten**, horien exekuzioa 2026ko epemuga baino lehen ez betetzeko arriskuaren aurrean. Proposamena da estatuko ESEPEetatik banatu gabe dauden funtsen % 65 -11.792,57 milioi- erkidegoei transferitzea. Euskadik kopuru horren % 8,88 kudeatuko luke.



Azkenik, ezin dugu NGEU programaren gobernantzari buruzko azterketa hau amaitutzat eman lobbyek eta aholkularitza-enpresek jokatu duten rol aktiboa aipatu gabe. Sarreratik adierazi dugun bezala, interes korporatiboak proiektuaren mamia badira, interes horiek gaur egungo kapitalismoarentzat ezinbestekoak diren eragile horien bitartez bideratu dira.

Europa mailan, lobbyen eta think tank delakoen esku-hartzea erabakigarria izan da. *Hidrogen Europe* erakundearen eginkizuna bereziki nabarmena da; izan ere, haren kideen artean HEHn presentzia handia duten multinazionalak daude, hala nola Repsol edo Iberdrola.

Estatu mailan, bai *España Puede* plana bai funtsen kudeaketa arautzen duen Errege Dekretua CEOerekin eta Big Four delakoekin (PwC, KPMG, Deloitte eta Ernst & Young) batera idatzi dira. 2022ko azaroan Espainiako Gobernuak Big Four horiengana jo zuen berriz ere, tratatze burokratikoak konpontzeko eta, hala, ordainketa berriak askatu ahal izateko.

HEH mailan, EAE izan da administrazioaren, enpresa handien eta aholkularitza-enpresen arteko sinbiosia argien ikusi den lurraldeetako bat. 2020ko uztailean, Eusko Jaurlaritzak PwC enpresa kontratatu zuen bere *Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategia* Bruselak ezarritako lehentasunetara moldatzeko eta NGEUren ildo berean jartzeko. Horrek, bada, lehenetsitako proiektuen lehen zerrenda bat eman zuen. Piztutako polemikaren ondorioz, atzera egin behar izan zuten, baina 2020ko abenduaren 29an proposamen berri bat aurkeztu zuten, hura ere PwC enpresaren eskutik. Aholkularitza-enpresa horrek antzeko beste enkargu bat izan zuen 2020ko irailean, SPRI agentziaren eskutik.

Estrategia zehazteko lehen momentu horretaz harago, aholkularitza enpresa horien presentzia etengabea izan da NGEU programa EAEn inplementatzeko prozesu osoan. Hala, 2023an zehar publikoa izan da Deloitte eta, berriz ere, PwC enpresei hiru kontratu esleitu zaizkiela –guztira 2 milioi euro– Osakidetzako aktiboak kudeatzeko<sup>30</sup>. Proiektua NGEU funtsen bitartez finantzatu da, eta osasun-zerbitzuaren egitura eta operatiboa digitalizatzeko helburua izan du. Ez da kasu bakarra: Ahoztar Zelaietak aipatu duen bezala, 2022tik 2023ra bitartean, Naidier Análisis y Acción Socioeconómica S.L. enpresak hainbat kontratu sinatu ditu erakunde publikoekin –guztira 300.000 euro–, NGEU funtsak kanpora ateratzeko.

Nafarroan, printzipioz, aholkularitzarekin lotutako eragile korporatibo horien presentzia formal txikiagoa dagoela dirudi<sup>31</sup>. Hala ere, estrategia zehazteko prozesuan eta gero funts horien kudeaketan Sodena bezalako erakundeen parte-hartze protagonikoa ikusi da. Erakunde hura formalki publikoa bada ere, interes korporatiboen zerbitzura lan egiten du, funtsak eta baliabideak Iberdrola edo Dalavor bezalako enpresetara bideratuz<sup>32</sup>.

30. Zelaieta (2023): [Osakidetza externaliza a PwC y Deloitte la mitad de los fondos europeos para transformación digital](https://elsalto.com), [elsalto.com](https://elsalto.com).

31. Nafarroako Gobernuak ez du EAeko bezain berariazkoa den plangintzarik egin; aitzitik, aurretik zeuden plangintzak birformulatu ditu. Logikoki, horrek azpikontratatu beharreko lan-bolumen txikiagoa ekarri duela.

32. Blasco (2020): [Sodena, el riesgo de dilapidar el dinero público](https://elsalto.com), [elsalto.com](https://elsalto.com)

Azken finean, korporazioen aldeko gobernantza zentralizatu batez ari gara, eta horretan kontinenteko eta estatuko instituzioen eta korporazio eta aholkularitza-enpresa handien arteko interes-kolusioa egiaztatzen da.

## 2.3. Onuradun nagusiak: enpresa transnazionalak

NGEU programa funtsak banatzeko sistema batean oinarritzen da, bai Estatu kideen artean, bai Estatu horietako erakundeen artean ere. Testuinguru horretan, esleipendunen artean partikularrak, erakunde publikoak edo enpresa txikiak badaude ere, korporazio transnazionalak dira, argi eta garbi, onuradun nagusiak.

Inflazio oso altuko zenbait urte eta gero, Batzordeak 806.900 milioi eurotan ezartzen du gaur egungo aurrekontua<sup>33</sup>. Horietatik, 468.900 milioi (58,4%) itzuli beharreko maileguak dira eta 338.000 milioi (41,6%) itzuli beharrik gabeko diru-laguntza zuzenak. Azken horiek guztiak EEMaren barruan daude, eta mekanismoak beste 385.800 milioi ere hartzen ditu itzuli beharreko mailegu gisa emateko (guztira, zenbatekoaren % 90 hartzen du).

Funtsak herrialde kideen artean banatzeko irizpideak honako hauek izan dira: biztanle-kopurua, pandemiak eragindako krisiak per capita BPGan izandako eragina, eta langabezia-maila<sup>34</sup>. Irizpide horiei jarraituz, Espainiako Estatuak 160.000 milioi euro jasotzea espero du, horietatik 84.000 milioi kreditu gisa, 2023ko abenduko prezioen arabera kalkulatuta<sup>35</sup>.

Orain arte, 232.430 milioi banatu dira. Espainiako Estatuak, 2023ko abendura arte, hiru transferentzia handi jaso zituen Europako Batzordetik, guztira 37.036,637 milioi. Horiez gain, 2024ko urtarriletik aurrera, bi ordainketa gehigarri jaso ditu, aurrefinantzaketa gisa: 1.043,339 milioi itzuli beharrik gabeko diru-laguntza gisa eta, lehen aldiz, 340 milioi itzuli beharreko mailegu gisa. Guztira, 38.419,976 milioi<sup>36</sup>.

NGEUren inplementazioa, oro har, geldoa izaten ari da eta trabatzeko joera du. Horrek programari emandako garrantzia estrategikoko itxurarekin kontrastatzen du, baina irudi hori ez da 2023ra arte

33. Europako Batzordea: [Europarako suspertze plana](#).

34. Ikus [2021/241 Erreklamendua \(EB\)](#).

35. Espainiako Gobernua (2023ko abendua): [IV Informe de Ejecución del Plan de Recuperación](#), 23.

36. Herrialde gehienek, 2021etik 2023ra bitartean, diru-laguntzei dagokien zatia eskatu dute, eta zorpetzea eragingo duten kredituak geroko faseetarako utzi dituzte. Salbuespenak izan dira Errumania, Portugal, Grezia, Txipre eta Italia. 2023ko abendutik aurrera, Lituania, Belgika, Kroazia, Hungaria, Polonia, Eslovenia eta Espainiako Estatuak bera itzuli beharreko maileguei lotutako ordainketak eskatzen hasi dira. Ikus [Europako Batzordea \(2023\)](#).

gainditzen hasi<sup>37</sup>-. Nolanahi ere, 2023ko abenduaren 20an, Gobernuak laugarren zatia osatzen duten 10.000 milioi euroak ordaintzea eskatu zion Batzordeari.

Halaber, 2023ko urriaren 2an, Europako Batzordeak Espainiako Estatuko Suspertze Planaren gehigarria onartu zuen<sup>38</sup>. Horrek planaren bigarren fasea implementatzeko bidea zabaltzen du, esleitutako baliabide guztiak mobilizatu bitartez<sup>39</sup>. Aurrefinantzaketa gisa egindako azken bi ordainketak gehigarriaren exekuzioaren hasierari dagozkio.

## 2. irudia: NGEU funtsak Espainiako Estatuan



Iturria: IV Informe de ejecución Plan de Recuperación

HEHri dagokionez, EAEk 2.339 milioi euro jaso ditu guztira. Horietatik 1,152 milioi zuzenean esleitu dizkiote bere eskumenen esparruan horiek zuzenean kudea ditzan, eta 1.187 milioi estatuaren zuzeneko kudeaketako ekimenen bitartez eman dizkiote. Horrez gain, 426 milioi gehiago jaso ditu, React EU programaren barruan, guztira 320 deialdi baino gehiago ebatzi direlarik.

37. Espainiako Gobernuaren arabera, 500.000 proiektu finantzatu dira 30.000 milioi eurekin, 2023ko abenduan ebatzitzako **laguntza deialdien eta lizitazioen bitartez**.

38. Espainiako Gobernua (2023): **Adenda al Plan de Recuperación**.

39. Fase berri horretan, REpowerEU plataformak bere proiektzioa handitzen du Planaren **31. osagai** gisa sartzean, **Batzordeak hura onartu ondoren**.

### 3. irudia: NGEU funtsak EAEn



Iturria: Leheneratze-plana gauzatzeari buruzko IV. txostena

Bere aldetik, Nafarroako Foru Erkidegoak 950 milioi euro jaso ditu. Horietatik 542 milioi zuzenean esleitu dizkiote bere eskumenen esparruan horiek zuzenean kudea ditzan, eta 408 estatuaren zuzeneko kudeaketako ekimenetan eman dizkiote. Horrez gain, 148 milioi jaso ditu React EU programaren barruan, guztira 155 deialdi baino gehiago ebatzi direlarik.


### 4. irudia: NGEU funtsak NFEn



Iturria: Leheneratze-plana gauzatzeari buruzko IV. txostena

Aipatu beharra dago kopuru horiek lurraldeari transferitutako funtsak adierazten dituztela. Baina horrek ez du esan nahi hartzaileak lurraldean errotutako erakundeak direnik.

**5. irudia: NGEU funtsak autonomia erkidego bakoitzeko (kudeaketa zuzena eta estatukoa)**



Iturria: Egileak, honetan oinarrituta: IV informe de Ejecución Plan Recuperación

Azkenik, ikus dezakegu NFE eta, batez ere, EAE nahiko atzeratuta daudela lurraldera zuzendutako NGEU funtsak jasotzeari dagokionez. Izan ere, ikusiko dugun bezala, lurralde horietara heldutako diru-laguntza nagusiak ez dira 2023ra arte onartzen hasi.

Funtsak nazioartean banatzeko esparru horretan, baita lehen aipatutako gobernantza ereduaren esparruan ere, enpresaren sektorea da NGEU funtsen hartzaile nagusia.

Erakundeen arteko banaketa hori formalki ezarritako hainbat bideren bitartez antolatzen da. Alde batetik, ministerioek eta gobernu autonomikoek deitutako *interes adierazpenak* ditugu. Horiek, lehen pauso moduko bat dira, gobernuak enpresaren sektoreari eta beste eremu batzuei egindako lehen “haztapen” bat, sektore bakoitzean egin daitezkeen proiektuak identifikatzeko. Gobernu zentralak, orain arte, 34 argitaratu ditu<sup>40</sup>, eta 18.000 proiektu-proposamen baino gehiago jaso ditu.

Beste alde batetik, finantzazioa lortzera bideratutako kanalak bi modutakoak dira: edo lehiaketa bidezko lizitazio, laguntza ireki eta diru-laguntza batera aurkeztea, edo ESEPE bat eskatzea eta horretan parte hartzea lortzea.

40. Espainiako Gobernua: [Manifestaciones de interés](#).

Lehen modalitatea irekiagoa da: deialdiaren arabera, edozein enpresa-mota aurkez daiteke baldintzak betetzen baditu. Eta badaude partikularrei zuzendutako laguntzak ere.

ESEPEak, ordea, aliantza publiko-privatuen arabera egituratzen dira. Horiek garatzeko ekonomia mistoko sozietateak osatzen dira, gutxienez % 51ko partaidetza publikoarekin. Kontakizun ofizialaren arabera, ETEak dira sektore pribatuko protagonistak, zeren hura osatzen duten enpresen % 40 txikiak izatea eskatzen baitute. Alabaina, proiektuen tamaina dela-eta, horiek finantza-ahalmen handia duten enpresek bakarrik har ditzakete. ETEek, beraz, korporazio horien premien menpeko eginkizuna izango dute.

Esate baterako, ESEPE bat garatzeko, aurrekontuaren % 90 ekoizpen prozesu osoa kontrolatzen duen enpresa transnazional baten eskuetan egon daiteke, eta horrekin batera lau edo bost ETEk aurrekontuaren gainontzeko % 10a izan dezakete eta ekoizpenaren fase jakin batzuk gara ditzakete<sup>41</sup>. Hirugarren kapituluan ikusiko dugun bezala, HEHn egoitza nagusia edo fabrika handiak dituzten multinazionalak eginkizun garrantzitsua dute ESEPE nagusietako batzuetan.

Halaber, 2023ko abenduraino Estatuan NGEU funtsen hartzaile nagusi diren hamar korporazioek jasotako zenbatekoari erreparatzen badiogu, enpresen sektoreak (hain zuzen, korporazio multinazionalak) izaera zentrala duela esan dezakegu<sup>42</sup>, eta automobilgintza eta tren-mugikortasuna bereziki nabarmenak dira.

---

41. González eta Ramiro (2022): [Análisis de los fondos Next Generation EU](#), OMAL-Paz con Dignidad.

42. Erakunde publikoek ere funtsak jasotzen dituzte, baina egiten dituzten lizitazioen azken onuradunen izenak (horiek bai, pribatuak) ezezagunak dira. Hala, ADIF-Alta Velocidad da hartzaile nagusia, 1.602.743.048,24 euroekin, baina ez da azken gauzatzailea. Beraz, erakunde publikoak funtsak kanalizatzeko bitartekoak dira, tratatze burokratikoko egoeran dagoen kudeaketa hura bizkortuz. Hori dela eta, zerrendan Gobernuak adierazitako korporazio pribatuak soilik aurkezten ditugu, horiek baitira NGEU programaren benetako protagonistak. Ikus [Espainiako Gobernu \(2023\)](#).



**14. taula. Estatuan NGEU funtsak jasotzen dituzten 10 korporazio nagusiak**

Power Holdco Spain SA	97.539.011,00
Mercedes Benz España S.A.	55.152.867,00
Rail & Truck Strait Union	45.616.639,20
Medway S.A. Sucursal en España	42.793.056,85
VTG Ferroviaria Española S.L.	37.558.000,00
Continental Rail S.A.U.	34.137.423,07
Stellantis España S.L.	29.046.048,00
Seat S.A.	28.376.674,20
Volkswagen Navarra S.A.	27.004.575,00
QEV Technologies S.L.	22.211.605,00

Iturria: Egileak

Azkenik, eta kapitulua amaitzeko, esan dezakegu NGEU programak orain arte izandako bilakaeraren azterketa zehatzak programaren benetako ezaugarriak identifikatzeko aukera ematen duela, eta izaera horrek ez datorrela kontakizun ofizialarekin bat. Beraz, ez da trantsizio ekosozialaren zerbitzurako tresna, baizik eta merkatu-hobi berdeak eta digitalak bereganatzeko ahalegin etsia, dimentsio anitzeko krisi sakoneko eta Europak AEBen eta Txinaren aldean duen atzerapeneko testuingurutik abiatuta. Halaber, ez da krisiak kaltetutako sektoreak leheneratzeko prozesu bat; izan ere, sektore ekonomikoek izan dute lehentasuna, eta ez sektore sozialek. Azkenik, haren funtsak ez dira pandemiak gehien kaltetutako gizarte sektoreetara joan, baizik eta enpresa transnazionalen eta aholkularitza-enpresen eskuetara.

Bestalde, Estatuaren esku-hartze proaktiboa programaren erdigunean kokatzen da, bai, baina PPP logikak areagotuz eta hobetuz. Horien bitartez, proiektuak eta ekimen estrategikoak dinamizatzen dituzten enpresa-konglomeratu handietara bideratzen dira funts publikoak. Instituzioen eginkizuna, beraz, korporazioen eragiletasuna laguntzera eta erraztera mugatzen da, enpresa handiei baldintzarik ezarri gabe, eta interes instituzional eta korporatiboen kolusioa sustatzen duen gobernantza eredu batekin.

## 3. NGEU PROGRAMA HEGO EUSKAL HERRIAN: KONTRARREFORMAK, ZORRA ETA BOTERE KORPORATIBOA


Behin NGEU programaren ezaugarri nagusiak aztertuta, tokian bertan duen eragina identifikatu beharra dago. Programaren zati handi bat implementatzeko prozesuan dagoenez, haren ondorio nagusiei buruzko balantzea egin dezakegu, eremu herritarretik kontakizun instituzional edulkoratu eta unibokoari aurre egiteko tresnak sortzeko asmoz. Izan ere, ondorio horiek langile-klasearen aurkako “Bermudetako triangelua” bat osatzen dute.

### 3.1. NGEU programaren “Bermudetako triangelua”

Kontakizun ofiziala win-win logika baten inguruan mugitzen da, eta horretan ez da ondorio negatiborik edo kontraesanik. Historia berriko beste momentu batzuetan ez bezala, itxuraz abantailak besterik ez dituen programa europar baten aurrean gaude. Antza kontrapartidarik gabeko inbertsio publiko izugarri hura eta EHI oraingoz bertan behera geratu izana biraketa politiko gisa ulertu da, lehen azertu dugun bezala,

Hala ere, NGEU programa ezartzen hasi eta hiru urtera, amaitutzat eman dezakegu iruditeria hori. Alderantziz, mota guztietako eraginak eta ondorioak ugaritzen ari direla egiazta dezakegu, herritarren aurkako “Bermudetako triangelu” baten modura.

#### 6. irudia: NGEU programaren Bermudetako triangelua



Iturria: Egileak

Horixe da, langileentzat, NGEU programaren benetako izaera, kontakizun ofizialaren ezkutuko aldea. Hura da, hasiera hasieratik izan den dinamika, etorkizunera ere proiektatzen dena. Zentzu horretan, bada, 2024 inflexio-puntua izango da; izan ere, honako hauek espero dira: ESEPEak bizkortzea, EHIren diziplinara itzultzea, egindako kontrarreformek aurrera egitea, eta maileguetan oinarritzen den NGEUren zati hori Espainiako Estatuan sartzea.

Datorren areagotze horren aurrean, eta triangelu hura HEHra heltzen ari dela ikusita, haren erpin guztiak sistematizatu beharra dago.

## 3.2. Kontrarreformak

*España Puede* planak, bere lehen fasean (2021-23), izaera eta orientazio desberdineko 102 neurri ditu. Hala, funtsak emateko baldintza guztiek ez dute hertsadura-maila bera. Zentzu horretan, NGEUren baldintza-arkitektura Europako Seihilekoan<sup>43</sup> identifikatutako hainbat eremurekin lotzen da batez ere. Eremu horiek Europako Batzordeak eta Gobernuak 2021eko urrian sinatutako akordioen dokumentuan jaso ziren<sup>44</sup>.

Lan, zerga eta pentsio sistemaren erreformak nabarmentzen ditugu. Gainera, zeharkako garrantzia duenez, kontratazio publikoan eta diru-laguntzetan duten eragina ere aztertuko dugu, enpresen ikuskatze publikoari dagokionez.

### 3.2.1. Lan erreforma

Lan Erreforma Batzordeak ezarritako epea (2021eko abenduaren 31) betez onartu zen. *España Puede* planearen 23. osagaien dauden erreformez harago (guztira 11)<sup>45</sup>, adostasun handia dago Batzordeak arlo horretan dituen exijentzien oinarriei buruz<sup>46</sup>.

---

43. Europako Seihilekoa 2010ean sortu zen, krisi ekonomikoaren eraginez. EBko kide diren Estaten politika ekonomikoen eta sozialen koordinazio-mekanismo bat da, eta modu arautuan eta aldizka egiten da. Batez ere, hazkunde ekonomikoko eta defizita eta zor publikoa murrizteko helburuak betetzera bideratuta dago. 2020tik, berregituratze prozesuan egon da, pandemiak Europako gobernantzan izan zuen eginkizun garrantzitsua dela-eta. 2024an aurrerapauso kualitatiboa espero da bere formatuari dagokionez, NGEU programaren implementazioa aurrera eramatearekin batera, eta, batez ere, EHIren Babes Klausula Orokorren behin betiko deuseztatzeari dagokionez.

44. Europako Batzordea (2021): **Annex to the Commission Decision approving the Operational Arrangements between the Commission and Spain pursuant to Regulation (EU) 2021/241.**

45. Espainiako Gobernuak: **Plan de Recuperación.**

46. Batez ere, PSOE-UPren gobernua 2012ko lan-erreforma osorik indargabetuko zuelako hauteskunde-promesaren aurrean Europaren prebentzioak baldintzatutako faktoreak.

## 15. taula. Europako Sei hilekoak lan-arloan dituen helburu nagusiak

Lan-merkatuaren dualtasuna murriztea, enpleguaren malgutasuna mantenduz: behin-behinekotasuna eta kontratu-tipologiak.
Enpresentzat lehiakortasun-baldintza batzuk mantentzea, hala nola irazteagatiko kalte-ordainei dagozkienak.
Hortik sortutako araudiaren egonkortasuna eta iraupena bermatzea, gorabehera politiko-sozialen gainetik: Estatu mailako sindikatu nagusien eta patronalen arteko akordioa.

Iturria: Egileak

Onartutako erreforma ondo mugatzen da programa horretara. Hala, Batzordearen onespena du, eta NGEU funtsetako 12.000 milioi ordaintzeari bide ematen dio. Beraz, gobernu-programaren muinean onartu eta barneratu egiten da baldintzazkotasun hori. Horrek, bada, 2012ko erreforma kaltegarria bertan behera uzteko hauteskunde-promesa haustea eragin du.

Egia da aldi baterako kontrataziorako erraztasunak mugatzen direla –ordura arte nagusia eta neurrigabea izan dena (% 90 baino gehiago HEHn)–, baina joerak ez dira pozgarriak izan. Zentzu horretan, kontratu finko etena bezalako modalitateak egoera marjinal batetik posizio garrantzitsu batera igaro dira kontratu mugagabeen arloan (HEHn 5.545etik 59.220ra 2022an). Beraz, erreformak baldintzak hobetzen baditu ere, nolabait lan prekarietatea ezkututzen du, hura onartu eta urtebetera HEHko datuek erakusten duten bezala<sup>47</sup>.

2023ko abenduan, aldi baterako kontratuen % 75 mantentzen ziren<sup>48</sup>, eta horrek kontratazio mugagabearen nolabaiteko gelditasuna erakusten du, erreformak 2023an izandako lehen bultzadaren ostean (% 159 hazi ziren). Beraz, oraingo testuinguruan aldi baterako kontratazioa kontratu guztien hiru laurden horietan egonkortu da, eta mugagabeak (bere aldaera guztietan) ez dute gainontzeko laurden hura gaintzen. Dударik gabe, balantzea ez da nahikoa.

2010eko eta 2012ko lan-erreformetan kaleratzeen aurrean disuasio-paper giltzarria duten elementuak, ezabatu ziren, eta oraingoan ere aldatu gabe utzi dira: bereziki bidegabeko kaleratzeengatiko zenbatekoak, baina baita izapidetze-soldaten indarraldia edo kaleratze kolektiboak legez justifikatzeko erraztasunak ere<sup>49</sup>. Hala, Nafarroak eta, batez ere, EAEk jasaten duen enplegu erregulazioko

47. ELA (2023): [Kontratazioaren Analisia 2022](#).

48. ELA (2024): [Lau kontratutik hiru aldi baterakoak izan dira 2023an](#).

49. Zentzu horretan, EH Bildurekin adostutako zuzenketa bati esker ez nahikotzat jo dira 2023ko Enpleguaren Legean izandako aurrerapausoak; izan ere, kaleratze kolektiboa justifikatzen duten baldintzen zerrenda ez da aldatzen, eta hura oso hautazkoa da, enpresen mesederako.

espedienteen jario etengabeak jarraitzen du, eta, ondorioz, bigarren sektoreari kalte egiten dio bereziki eta lurraldeko krisi industrialak ere larriagotzen du<sup>50</sup>.

Erreformatik estatu mailako sektore-hitzarmenen lehentasuna mantentzen du autonomia-erkidegoetako edo probintzietako horien gainetik, eta, hala, HEHko klase-borrokaren esparru autonomoa kaltetzen du. 2023ko azaroan PNV eta PSOEn artean sinatutako inbestidura-akordioak 6 hilabeteko epea ezartzen zuen gai honi buelta emateko, baina txosten honen itxiera-datara helduta, gako hau oraindik zain dago.

Oraingo erreformatik sartzen duen RED mekanismoaren bitartez orain arte behin-behineko terminoetan ematen zen figura bat finkatzen da: enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea. Dударik gabe, horren inplementazioa orokorra izan da azken urteotan, eta enplegu mailan sarraski bat saihesteko balio izan du. EAEn 200.000 pertsona baino gehiagok erabili zuten mekanismo hura 2020an zehar, hau da pandemiaren unerik latzenez. Hala ere, epe luzeko ikuspegiak begiratu, tresna horrek Estatua enpresen irabazien bermatzaile gisa ezartzen duen ikuspegi aurrera egiten du, mugarik gabe, izan ere, enpresen sektoreari zuzendutako etengabeko erreskatea da, enplegua mantentzeko helburuz.

Funtsean, dirua eremu publikotik esku pribatuetara mugitzen duen bidea da, eta enpresa ez ixteko konpromisoa da kontraprestazio bakarra. Baina enpresa handiei iruzurra egiteko eremuak eskaintzen die ere, eta, hala, HEHn sindikatuak aldi baterako erregulazio prozesu handi asko salatzen ari dira, horiek justifikaziorik ez dutelakoan eta enpresa transnazional handien barruan lan karga arintzeko erabili dituztelakoan, batez ere, industria-sektorean<sup>51</sup>.

Azken finean, lan erreforma horretan oso nabarmena izan da Europaren baldintzen inposizioa, eta, ondorioz, hobekuntza argiak baditu ere, korporazioen lehentasuna, enpresa-lehiakortasuna eta zerga-diziplina bermatzen ditu. Beraz, bere elementu positiboak gorabehera, ez du modu estrategikoan eta nahikoan aldatzen langileen eta enpresa handiaren botere desoreka, eta ez ditu Estatuko eta HEHko botere korporatiboaren ahalmenak mugatzen.

---

50. Hainbat kasu daude. Siemens Gamesa enpresak kaleratzeak proposatu ditu Sarrigurenen, Zamudion eta Aoizen dituen lantegietan, Alemaniako matrizea burutzen ari den huste prozesuaren barruan. Edo Estatu mailan IBEX 35aren banderantzia den Telefonicak ezarri nahi duen erregulazio espedientea dugu. Horrek 5.124 pertsonari eragin diezake Estatu osoan, eta horietatik 291ri HEHn. Kaltetutako enpresen zerrenda luzea da: Maxam, Vayven Delivery, Tubacex, etc. Azken hura, hain zuzen ere, judizialki balio gabetutako erregulazio espediente baten protagonista izan da. Horrek guztiak, beraz, enpresa handiaren diskrezionalitatea frogatzen du tresna horren erabileran (batez ere pandemiaren shocka eta “denak balio du” logika aprobeztatuz). Erreformatik ezin izan du hori atzera bota.

51. Honako kasu hauek ditugu: Arcelor Mittal (Etxebarriko eta Lesakako lantegietan eta AMDS eta banaketa jardueretan aldi baterako erregulazioa egin nahi duena) edo Volkswagen Navarra (zenbait espedienteren ondoren aldi baterako beste erregulazio bat egin nahi duena 2024tik 2025era bitartean langileen gaineratikoaren zati bat xurgatzeko). Enpresa biak Estatuko NGEU funtsak jaso dituzten 100 enpresen artean daude.

Zentzu horretan, inozoa da pentsatzea Bruselatik inposatutako programa batean oinarritutako adostasunaren bitartez enpresek lan, gizarte eta politika baldintzak ezartzeko duten gaitasuna murriztuko dela. NGEU funtsen baldintzak ezartzean, enpresen lehiakortasuna bermatzea da Batzordearen lehentasuna, eta elementu hori erreforman mantentzen da. Hura funtsezko ardatza den aldetik, Europako instituzioekin konfrontazio zuzena eskatzen du.

### 3.2.2. Pentsioen erreforma

Europako Seihilekoaren aginduak pentsioen arloan, *España Puede* planaren 30. osagaien<sup>52</sup> ezarritako erreformetan sistematizatu ziren.

Berriz ere, Europaren baldintzak zerrenda horretako esparru jakin batzuetan zentratzen dira, nahiz eta zerrendan 9 erreforma dauden guztira. Pentsioen iraunkortasuna, herritarren aurkako zerga-diziplinako ikuspegi batetik, exijitutako erreformen korapilo gordiarra da, eta erreforma horiek dira ordainketa berriak baldintzatzen dituztenak.

Zentzu horretan, benetako baldintzak hiru dira eta hurrengo taulan adierazten ditugu.

#### 16. taula: Europako Seihilekoak pentsio-arloan dituen helburu nagusiak

Erretiro aurreratuak murriztea.
Erretiroaren aurrekontu-iraunkortasuna, aldaketa demografikoen eta belaunaldi arteko ekitatearen arabera.
Pentsioaren konputazio-aldia doitzea, erretirorako luzatuz.

Iturria: Egileak

Espainiako Gobernuak exijentzia horiek betetzeko izan duen estrategia, orain arte, hiru fasetan antolatu da.

52. Espainiako Gobernuak: [Plan de Recuperación](#).



### 17. taula: Pentsio-sistemaren erreforma

<b>1. FASEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2021eko azaroan iragarri zuten, eta 21/2021 Legean gauzatu.</li> <li>• Giltzarria, Lan Erreformarekin batera, Batzordearen oniritzia jasotzeko eta NGEU laguntzen bigarren zatia askatzeko: 12.000 milioi euro, 2022ko uztailaren 29an transferituak.</li> </ul> <p>Eduki nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Belaunaldi arteko ekitate mekanismo bat sortzea: 2023 eta 2032 artean, enpresen eta langileen kotizazioak % 0,6 igo.</li> <li>• Epe ertaineko denbora-muga bat ezartzea sistema hori berrikusteko, eta, nahikoa ez bada, etorkizuneko pentsioen gaineko murrizketak planteatzea.</li> </ul>
<b>2. FASEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2/2023 Errege Dekretu-Legea, Kongresuan 2023ko martxoaren 30ean baliozkotua.</li> <li>• Martxoaren 31n, Batzordeak NGEU laguntzen hirugarren zatia askatzen du: 6.000 milioi euro.</li> </ul> <p>Eduki nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pentsioak kalkulatzeko aldia handitzea. 2040tik aurrera, lan-bizitzaren azken 29 urteak hartuko dira erreferentzia gisa, 24 hilabeterik txarrenak kenduta. Trantsizio epe bat ezartzen da.</li> <li>• Gizarte Segurantzaren diru-sarrerak handitzeko neurriak (Belaunaldi arteko Ekitate Mekanismoaren kotizazioak % 0,6tik % 1,2ra handitzea; urtero gehienezko kotizazio oinarriak igotzea; elkartasun kuota bat ezartzea).</li> <li>• Pentsioetan gastatzen dena mugatzea, hori zuzenean gizarte-kotizazioen bitartez lortutako diru-sarrerarekin lotuz. 2025eko martxotik aurrera, eta hiru urterik behin, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentek gastu muga hori errespetatzen ari den aztertuko du, eta neurriak proposatuko ditu hala ez izatekotan (doikuntzako ikuspegi batetik).</li> </ul>
<b>3. FASEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 7/2023 Errege Dekretu-Legea, 2024ko urtarrilaren 9an Kongresuan indargabetu zen, aurkako bozken ondorioz.</li> <li>• Neurri horren onarpena NGEU laguntzen laugarren zatia askatzearekin zuzenean lotuta dago. Zati hura 10.000 milioi eurokoa da, eta araua onartu ez izanaren ondorioz, zintzilik gelditu da Batzordearen aldetik.</li> </ul> <p>Eduki nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gutxieneko kotizazio-oinarriaren beharpen progresiboa langabezia-sorospena jasotzen duten 52 urtetik gorakoentzat<sup>53</sup>. Horren ondorioz, bereziki kaltebera den sektore horrek kobratuko dituen pentsioak murrizten dira. Trukean, arauak 90 eurotan handitzen du langabezia-sorospena.</li> <li>• Neurria Bruselatik inposatutako baldintzen artean kokatzen da, eta haren helburua, alde batetik, erretiro aurreratuak saihestea da, eta, bestetik, gastu publikoa herstura fiskaleko ikuspegi batetik murrizteko neurri gehigarriak ezartzea da.</li> </ul>

Iturria: Egileak

<sup>53</sup> Gobernuak 23. osagaian kokatzen du neurria, hau da lan-erreformari eta langabezia-prestazioei dagokien horretan. Baina, egia esan, neurriaren eragin handiena pentsioen alorrean ikusten da, eta horregatik sartzen dugu atal honetan.

Erreformatik, beraz, ez du kentzen erretiratzeko adina 67 urtera igotzen zuen 2013ko neurria. Aitzitik, erretiratzeko benetako adina pixkanaka adin legalarekin berdintzeko exijentzia betetzen du. Hala, 2024ko urtarriletik aurrera, erretiratzeko adina, Espainiako Estatuan, 66 urte eta 6 hilabete da, hau da, 2023an baino bi hilabete gehiago. 2019tik 2023ra bitartean, batez besteko adina 63,9tik 64,2ra igo da Nafarroan, eta 63,9tik 64,5era EAEn. Legez ezarritako adinetik (67 urte) gero eta hurbilago<sup>54</sup>.

Beraz, erreforman murrizketak onartzen dira, gerora begira bada ere; hain zuzen ere, kalkulua egiteko konputatzen duten urte kopurua handitzen da, Bruselak eskatu bezala. Hortaz, hersturako ikuskatze-mekanismo berriak agertzen dira, European gastuaren kontrola eztabaidagai nagusia izango baita berriz ere. Halaber, pentsio-sistema publikoaren dimentsio ez kontributiboa indartzeko ikuspegia zabaltzeari uko egiten dio erreformatik (adibidez, horien zati bat zergen bitartez finantzatuz).

Egia da diru-sarrerak handitzeko eragiten duela, eta kotizazioen igoeran zati handiena enpresak egiten duen ekarpenarenari dagokiola. Egia da, halaber, ez dela Europak patronalekiko akordioari dagokionez egindako exijentzia bete; erreformaren hainbat zati ez baitira onartuak izan Toledoko Itunetik. Era berean, pentsioak handitu egin dira azken urteotan, baina ez dira Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak eskatzen duen 1.080 euroko gutxieneko pentsiora hurbildu. Gaur egungo inflazio-testuinguruan igoera hori ez da nahikoa; izan ere, gutxieneko pentsioak % 5-7 igozakeak esan nahi du pentsio horiek ez direla kasu askotan 830 eurotik gorakoak izango.

Langabezia-sorospena jasotzen duten 52 urtetik gorako pentsioen murrizketari dagokionez, 2024ko urtarrileko azken gertakariak argi uzten dute honako hau:

- Europako NGEU baldintzek modu erabakigarrian eta hertsatzailean eragiten dute politika publikoetan, laguntzen laugarren zatia gelditu izanak erakusten duen bezala.
- Baldintza horiek ez dira ez sozialak eta ez neokeynestarrak; aitzitik, gastu publikoa etengabe murrizteko logikaren alde eragiten dute.

Azken finean, koalizioko gobernuaren barruan korporazioen aldeko arima duen alderdiak ezarri du erreforma, eta, horretan, orekak gorabehera, Bruselak inposatutako baldintzak errespetatu dira, funtsean eta forman, inolako borrokarik gabe. Ondorioz, epe ertainera begira gizarte borroka ugartzeko oinarriak ezarri dira arlo horretan, batez ere HEH bezalako lurralde bati buruz ari garenean, bertan pentsiodunen mugimendua oso borrokalaria baita.

54. [Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte-Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia](#) (2023).

### 3.2.3. Zerga erreforma

Europako Seihilekoaren aginduak, arlo fiskalean, *España Puede* planeko 28. osagaien ezarritako erreformetan sistematizatu ziren<sup>55</sup>. Hura 2023ko irailean eguneratu zen lehen aipatutako gehigarrian oinarrituta.

Kasu honetan, Egonkortasun eta Hazkunde Ituna 2024ra arte eteteak baldintzatutako testuinguru batean gaude. Horrek defizita kontrolatzeko ikuspegia nolabait lasaitzeko eta diru-sarrerak handitzean zentratzeko aukera eman du, zerga egonkortasun handiagoa lortze aldera. Baina beti Ituna itzuliko delako mehatxuarekin, eta kontuan hartuta gastu publikoaren efizientzia-irizpideak ezartzen dituen beste osagai espezifiko bat dagoela (29).

Nolanahi ere, zergen progresibitate handiagoa eta enpresei zerga-karga handiagoa ezartzea ekarri duten zenbait ekimen abian jarri dira, nolabait osagai horren eraginpean. Esparru horretan Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuaren proposamenekin bat egin du, oro har, eta alde biko harmonizazio-dinamika bat ezarri du estatuko proposamenak foru erkidegoko zerga-esparru autonomoarekin bateratzeko<sup>56</sup>. Eusko Jaurlaritzak, aldiz, jarrera burugorria eta oztopatzailea erakutsi du, enpresen interesen eta errenta handien zerbitzura, eta, aukera izan duenean, zerga-arloko autonomia foralak eskaintzen dituen abantailak baliatu ditu.

2020ko urrian Planean aurreikusitako bi figura hauek onartu ziren: finantza-transakzioen gaineko zerga eta zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga. Aurrerago, 2023ko urtarrilean, indarrean sartu da plastikozko ontzi ez berrerabilgarrien gaineko zerga berezia, trantsizio ekologikoko helburu fiskalekin bat.

Aberastasun handien gaineko zerga aurreko legegintzaldiko eztabaidagai nagusietako bat izan da. 2022ko azaroan onartu zen eta 3 milioi eurotik gorako ondare garbiei aplikatzen zaie.

Nafarroako Foru Erkidegoak bere zerga esparruan sartzen du zerga horren edukia, hau da, ondarearen gaineko zergan subsumitutako berezko araudi baten bitartez baina, funtsean, Estatuko arauak ezarritako karga errespetatuz.

EAEn, aldiz, instituzioak aberastasun handien gaineko karga handitzearen aurka agertu dira, eta prozesua oztopatu dute. Azkenik, hura erkidegoko araudiko zerga itundua izatea adostu da, eta aldundiek dute hura kudeatzeko eta biltzeko eskumena. Horretarako Kontzertuaren Legea erreformatu behar izan da. Itunak aberastasun handientzako tratamendu onberagoa ezartzen du; izan ere, ondare handiak eta inbertsioak erakartzeko helburua duen Bizkaia izan da sustatzaile nagusietako bat.

55. Espainiako Gobernuak (2023): **Plan de Recuperación** eta **componente 28** (eguneratua).

56. Ikus [navarra.es](https://www.navarra.es). 2023tik 2024ra bitartean nafar haziendak **104 milioi** euro bide horretatik jasoko dituela aurreikusten da.

Antzeko liskarra egon da bankaren eta energia-enpresen ezohiko irabazien gaineko zergaren inguruan. Kongresuak 2022ko azaroan onartu zuen zerga, eta, haren arabera, urtean 1.000 miloi euroko irabaziak dituzten energia-enpresek beren negozio bolumenaren % 1,2 eta bankuek bitartekaritza marjinen bitartez lortutako diru-sarreraren % 4,8 ordaindu behar dute.

Repsol enpresaren CEO den Josu Jon Imaz buruzagi jeltzale ohia zergaren aurka agertu da, eta estatuko mailako sektore estrategikoetan desinbertsio-prozesuak burutzeko mehatxua ere egin du, hala nola berriztagarrien sektorean. EAJk postulatu horiek defendatzeaz arduratu da, aipatutako zerga publikoki kritikatu, eta Pedro Sanchezen 2023ko azaroko inbestiduran lehentasuneko negoziagai bilakatu du. Interes korporatibo horiek bere agendaren lehentasun diren aldetik, EAJk zergaren bertsio berri bat adostu du 2024rako, enpresen gaineko zerga-karga txikiagotzen duena eta “estrategikotzat” hartutako inbertsioetarako hobariak, dedukzioak eta pizgarriak ezartzen dituen (batez ere trantsizio energetikoaren arloan). Gainera, zerga hura foru ogasunek kudeatzea adostu dute. (bai EAEn bai NFEEn).

Sozietateen gaineko zergaren arloan, 2023ko abenduan Europar Batasunaren zuzentaraua<sup>57</sup> Espainiako Estatuan ezartzea izan da mugarri nagusia. Zuzentarau horrek % 15eko gutxieneko tasa ezartzen du Batasun osoko korporazio eta enpresa multinazionalentzat. Hala, azken hamarkadetan bezala, Foru Aldundiak (bereziki modu oldarkorreak Bizkaikoa) Estatukoa baino txikiagoa den tasa efektibo bat ezartzeko borrokatzen ari dira, lurraldera kapitalak erakartzeko lehia errazteko helburuz. Nafarroan ere bai, eta, hain zuzen, bertan dugu Europa osoko sozietateen gaineko zergarik baxuena<sup>58</sup>.

Azkenik, PFEZan zati baxuenen zerga-karga murrizteko ekimen partzialak sustatu dira, “ezkutu sozialaren” espirituaren ildotik.

Azken finean, enpresa handien eta kapitalen irabaziak mugatzen dituzten erreforma progresiboak bultzatu dira. Baina horiek ez dituzte indar-oreka nagusiak aldatzen botere korporatiboak menperatutako gizarte honetan. Euskal erakundeak gobernatzen dituzten indarrak (batez ere EAEn) enpresa jakinen interesen bozeramaile bilakatu dira, hala nola Iberdrola eta Repsol-Petronor enpresenak.

Egoera nabarmen aldatuko da 2024an, orduan indarrean sartuko baita berriro Egonkortasun eta Hazkunde Itunak ezarritako herstura, eta ondorioz zorpetzeko ahalmena eta gastu publikoa mugatuko da. Europak ezarritako baldintzak (NGEU programari lotuta daudenak, baina kasu honetan harago doazenak), orain arte, nolabait, malguak izan dira zerga-esparruan, eta aurrerapauso txikiak ahalbidetu dituzte 2021etik 2023ra bitartean. Baina, aurrerantzean, nabarmen gogortuko dira, eta neurri horiek

57. Batzordearen 2022/2523 [Zuzentaraua](#) (EB).

58. Ikus [ELA sindikatua](#) (2023).

izan dezaketen proiektzioa mugatuko dute<sup>59</sup>. Espainiako Estatuko 2023-26 aldirako Egonkortasun Programa eguneratuak Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoak mantentzeko buruzko ikuspegi optimista erakusten du. Hazkunde hori, Gobernuaren erretorikan, NGEU programari estu lotuta dago. Halaber, Programak aditzera ematen du hazkunde horrek zerga bitarteko diru-sarrerak bermatzeko aukera emango duela eta hersturazko murrizketa gogorrak ekidingo dituela, eta, hala, zorra kontrolpean mantenduko dela.

Egia esateko, zerga-neurri horiei ezarritako mugak argitara aterako dira, ziurrenik, hain hedakorra ez den testuinguru ekonomiko batean (eta, beraz, diru gutxiago bilduko da). Neurri ausartagorik ezean, Gobernuaren agenda fiskalari josturak igarriko zaizkio, eta Eusko Jaurlaritzak eta beste administrazio batzuek korporazioen alde betetzen duten eginkizuna argiago ikusiko da.

### 3.2.4. Kontratazio publikoaren eta diru-laguntzen erreforma

Pandemiaren ezohikotasun espirituak are gehiago ahuldu zituen diru publikoz lagundutako ekimen pribatuek diru horretaz egiten duten erabileraren eta horien ondorioen ikuskatze eta baldintzatze mekanismoak.

Hala, ESEPEen garrantziak justifikatu egin du kontratazio publikoko araudiaren desarautze nabarmena. Enpresa hartzaileek esleitutako aurrekontuaren % 90 jaso dezakete aurrerapen gisa, eta gainera kaudimen bermeak eta baldintzak murriztu ditzakete eta ingurumen-inpaktua zehazteko epeak bizkortu eta sinplifika ditzakete.

Planaren hedapen-potentziala mugatzen duten baldintza horiek “burokrazia” gisa aurkezten dituzte, modu iruzurtian, eta *España Puede* planaren araudia idatzi zenetik ere horiek ekiditen saiatu dira. Oraindik ere, hura gobernantzaren funtsezko irizpide bat da, adibidez, instalazio berriztagarriak ezartzeko tramite administratiboak erraztu bitartez. Hemen, nabariak dira, ingurumen-inpaktuak zehazteko prozedura murriztua bezalako figurak, beren tamaina, kokapena eta ezaugarriak direla-eta ingurumen-inpaktu txikiagoa duten proiektuei zuzenduak.

Botere publikoen ikuskatze-jarduera erakunde hartzaileek funtsak behar bezala erabiltzen dituztela bermatzeko kontrol-sistemak sortzera bideratzen da. Hala, iruzurraren aurkako borroka eta, oro har, kudeaketa ekonomikoko eta finantzarioko estandarrak igotzea bezalako kontuak azpimarratzen dira. Horren barruak ditugu Suspertze Planaren jarraipena eta gestioa egiteko sistema-integrala (CoFFEE) eta “data timing” delakoaren bidez interes-gatazkako arriskuaren azterketa sistematikoa egiteko tresna (MINERVA).

59. Agertzen ari diren baldintzen artean, adibidez, Batzordeak adierazi du, **2023ko azaroan**, ez dela egokia energia enpresen ezohiko irabazien gaineko zergak mantentzea, ia-ia horiek Estatuaren laguntza ilegitimoak izango balira bezala. Eta hori ikusten zen baita Europako Kontseiluak 2022ko maiatzean Espainiako Estatuko Egonkortasun Planerako egiten zituen **gomendioetan** ere; izan ere, horietako lehena kontu publikoak kontrolatzeko helburua zuen: “zerga-politika zuhurra”, “zorraren pixkanakako murriztapena” eta “finantza publikoen iraunkortasuna” elementu zentral gisa hartzen zituen.

NGEU programaren lurralde-inplementazioa ahalik eta gehien bizkortzeko, larrialdiko araudien onarpena ikusi da HEHn ere. Hala adierazten du Nafarroako Kontuen Ganberak prozeduren tramitazioari, aurrekontuen gestioari eta kontrolari, diru-laguntzak emateari eta kontratazio-arloari dagokienez,<sup>60</sup>.

Ikuspegi tekniko-enpresarial argia duen kudeaketa eta kontrol sistema bat da, eta kontratazio eta laguntza publikoen esparruan ingurumen arloko –oso garrantzitsua megaproiektu handien kasuan– eta lan arloko kontuen desarauketa larriagotzen du. Argi dago ez dagoela finantzaketa publiko hori eskubideen arloko estandar jakin batzuk betetzera baldintzatuko duen mekanismorik.

Horren adibide gisa, HEHn enpresa asko deslokalizazio eta/edo erregulazio espedienteak ezartzeko prozesuetan daude NGEU programatik baliabide ugari jasotzen dituzten bitartean. Horixe da Stellantis enpresaren eta Urdulizen duen lantegiaren (Mecaner) kasua, 3.4. atalean ikusiko dugun bezala. Edo Laudioko Glavista enpresa, Future: Fast Forward enpresa-elkartearen parte dena. Azken hori ibilgailu elektrikoaren ESEPEa ezartzeko enpresa-elkarte nagusia da.

EAEEn aldiz, zenbait urrats egin dira norabide horretan, hala nola Diru-laguntzen Legean sartutako arau berri baten onarpena. Horrek azken zortzi urtetan jasotako diru-laguntzak itzultzera behartuko ditu enpresak deslokalizazioa justifikatuta ez dagoenean, eta enpresa horiek ezin izango dituzte diru-laguntzak jaso beste zortzi urtez. Arau hura, nolahi ere, Eusko Jaurlaritzak zuzenean egindako NGEU diru-laguntzen deialdiei soilik dagokie.

### 3.3. Zorra

“Bermudetako triangeluaren” bigarren erpina zorra da. Hura NGEU programa EBko gobernantza neoliberalaren autozuzenketa gisa aurkezten saiatzeko erabilitako argudio nagusietako bat da.

#### 18. taula. Zorrari eta EBko gobernantzari buruzko eztabaidaren ardatzak

Lehen aldiz, NGEU programaren aurrekontua finantzatzeko zor mutualizatuko tituluak jaulki dira, hau da, EBk oro har erantzuten dituenak, eta ez estatu bakoitzak bere kabuz, kide ahulenen zor subiranoari eraso espekulatiboak egiteko aukera mugatuz.

Funts horien zati handi batek, ustez, ez die zorrik eragingo estatuei eta enpresei, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak baitira.

EHLaren behin-behineko etetea atzera bueltarik gabeko norabide aldaketa gisa interpretatu zen.

Iturria: Egileak

60. Nafarroako Kontuen Ganbera (2023): [Medidas adoptadas en la Administración de la Comunidad Foral de Navarra para la implementación del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia](#), 16.



Lehenengo biak, egia erdiak dira. Hirugarrena erabat faltsua da. Zorrak EBko diziplinamendu-mekanismo nagusi gisa jarduten jarraitzen du, eta HEHn epe ertainean ezarriko diren politika publikoei zuzenean eragiten die.

Europar Batasunak NGEU bonuen bitartez egindako zorra itzuli behar du 2028tik 2058ra bitartean. Horretarako bidea gaur egungo aurrekontu komunitarioaren (2021-2027) ondorengoak dira. Aurrekontuak diru-bilketako zenbait kontzepturen eta Estatu kideen urteko ekarpenen bitartez osatzen dira.

Esparru horretan, Alemaniak, Herbehereek, Suediak eta beste batzuek beherapen nabarmena dute EBren kontuei egiten dieten ekarpenean. Herrialde horiek zor mutualizatuaren aurka erakusten zuten jarrera kontzesio horren bitartez konpondu zen. Herrialde batzuek gutxiago ordaintzen badute, besteek gehiago ordainduko dute hori konpentsatzeko; esate baterako, Espainiako Estatuak EBri egiten dion ekarpena handitzen ari da. Izan ere, 2017an ekarpen hura 10.808 milioi eurokoa zen, eta 2022an 17.785 milioiokoa. Egoera horren ondorioz, Espainiako Estatu hartzaile garbia izatetik emaile garbia izatera igaro da. Igoera nabarmena, zuzenean NGEU negoziazioei lotuta dagoena, eta zor hori itzultzeko zeharkako modu bat.

Erkidegoaren aurrekontuari egindako ekarpena hain modu nabarmenean handitzeko, baliabideak kendu behar izan dira Estatuko Aurrekontu Orokorretatik. Eta baliabide horiek beste helburu batzuetara biderra zitezkeen heinean (hala nola zerbitzu publikoetara), hori murrizketak ezartzea da (behintzat, ez badira diru-sarrera fiskalak ere nabarmen handitzen).

Zentzu horretan, argia dirudi EEMaren erdia osatzen duten funts galdurako diru-laguntzak ez direla itzuli beharrik gabekoak. Aitzitik, zeharkako maileguak dira, eta Estatuak erkidegoaren aurrekontuari egiten dion ekarpena handituz itzultzen ditu. Jakina, mekanismoa malguagoa da, baina obligazioak eragiten ditu.

Aurreko kapituluan aipatu dugun bezala, Batzordeak onartutako gehigarrian maileguen bitarteko EEMaren zatia eskatzen hastea aurreikusten da. Hau da, NGEU programak emandako finantziazioaren itzuli beharreko zatia, kreditu-formatu tradizional baten bitartez ematen dena. Horrek, funts galdurako diru-laguntzek ez bezala, zor konputatua eragingo du, eta adierazleak gorantz bultzatuko ditu. Gainera, Europak doikuntza fiskaleko formulak aplikatzeko presio politikoa areagotu dezake. Izan ere, mailegu horien tratamendua 2024tik aurrerako zerga-arauak berritzeko negoziazioen muinean izan da.

2023ko abenduan, 27ek EBren zerga-arau berriak ituntzen amaitu dute. Horiek 2020. urteaz geroztik indarrean dagoen Babes Klausulari amaiera eman diote, eta zorra eta defizit publikoa kontrolatzeko irizpide zorrotzak leheneratzen dituzte<sup>61</sup>. Mekanismo berria 2025ean sartuko da indarrean bere

61. 2023ko martxoan, **Batzordeak** hainbat orientabide argitaratu zituen etorriko zenaren aurrean: EHIren Babes Klausula kentzea, defizita BPGaren % 3ra mugatzen zuten oinarritzko erreferentziak leheneratzea, eta abar. Edukiaz harago, orientabideen espiritu orokorra argia da.

osotasunean, baina herstura itzuli dela esan dezakegu. Hortaz, zor handi hori kontrolatzea<sup>62</sup> Espainiako Estatuko politika publikoen funtsezko ardatz bilakatuko da.

### 19. taula. Zorraren eta defizit publikoaren egoera 2023ko irailean

	Estatua	EAE	NFE
Zor publikoa	BPGaren % 109,9 1578 mila milioi	BPGaren % 12,7 10.851 milioi	BPGaren % 13,10 3167 milioi
Defizit publikoa	BPGaren % 1,37 20.053 milioi	BPGaren % 0,14 125 milioi	BPGaren % 0,57 140 milioi

Iturria: Espainiako Bankua

Horrek esan nahi du berriz ere murrizketak daudela eta gainean dauden organismoek administrazio publikoen ahalmena mugatzen dutela. Beraz, Europak Espainiako Estatua ikuskatzen duen bitartean, Estatuak EAEko eta NFEko administrazioak ikuskatzen ditu.

Zentzu horretan, 2024ko hasieran, Kongresuak bozkatu du administrazio guztien gastua handitzeko muga % 2,6 izango dela 2024an, % 2,7 2025ean eta % 2,8 2026an<sup>63</sup>. Mekanismo hura ez dago erabat indarrean, eta hurrengo urteetarako hersturaren aldeko presioa areagotzea espero da. Horrek, jakina, zuzenean eragiten die Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Foru Aldundiei eta HEHko udalei.

Azken batean, NGEU programak berez handia den zorra are gehiago handituko du hainbat bideren bitartez, batzuk zuzenak eta besteak zeharkakoak. Politika publikoak ikuskatzeko bide bat da, enpresen aldeko ikuspegi batetik, eta hura berriki onartutako doikuntza fiskaleko eta kontu publikoen kontroleko neurrien zorroztearekin abiatzen da. Horren ondorioz, organigramaren beheko aldean aurkitzen diren administrazioen subiranotasuna murriztuko da eta, azken batean, zerbitzu publikoen aurrekontuak murriztuko dira. Nafarroan eta, batez ere, EAEn, horrek zenbait zerbitzuren narriadura nabarmena eragin dezake, hala nola Osakidetza, nahiz eta horiek dagoeneko beren finantziazio-beharrak eta baliabideak oso mugatuta dituzten.

62. Pandemian zor hori handitu egin zen, aldi baterako erregulazioak bezalako mekanismoak eta ezkutu sozialeko neurriak ugaritzearen ondorioz. Hala ere, NGEU programak ekonomia arloan egindako dinamizazioa sumatu da, nolabait; izan ere, azken hilabeteetan zorrak BPGarekiko duen proportzioa positiboagoa izan da. Are gehiago EAEn eta NFEEn, Estatu osoan horiek baitituzte zor/BPG ratorik onenak.

63. Ikus [ELA \(2023\)](#)

## 3.4. Enpresa transnazionalak, megaproiektuak, burbuilak

Triangeluaren hirugarren erpina botere korporatiboa sendotzeari dagokio. Aurreikusi bezala, funts horien onuradun nagusiak HEHn hainbat lekutan kokatutako korporazio handiak dira. Eta finantzatutako ekimenak, megaproiektuak, espekulazio-burbuilak eta eskala handiko ekimenak dira, balio-kate globaletan modu abantailatsuan sartzeko helburua dutenak.

Eta hori guztia inbertsio-logika bipolar batetik, bi helburu hauek uztartuz: alde batetik, negozio berde eta digitaleko merkatu hobi global berrietan (berriztagarriak, hidrogenoa, ibilgailu elektrikoek bateriak, etab.) sartzeko gai den ekoizpen-ehuna sortzea; eta bestetik, beren pisuagatik finantza-laguntza publikoa behar duten sektore tradizionalagoetarako orientazioa (obrak eta eraikuntzak, nekazaritzako elikagaiak, etab.). Lehenik, norik (enpresak eta erakunde onuradunak) eta gero zer (inbertsioak, megaproiektuak, burbuilak) aztertuko dugu.

### 3.4.1. Enpresa onuradunak HEHn

Korporazio handiak NGEU funtsak bereganatzen ari dira. Hasiara-hasieratik, HEHn egoitza edo presentzia handia duten multinazionalak izan dira proposamen gehien egin dituztenak, ESEPE hitzarmenak, deialdiak, lizitazioak eta interes-adierazpenak moldatzeko<sup>64</sup> eta, azken batean, kontzesioak ematen dizkietela bermatzeko.

Gaur, NGEU inplementatzen hasi eta hiru urtera, hobeto dakigu zer erakunde finantzatzen ari diren benetan. Ikuspegi partziala soilik, izan ere, administrazioak gardentasunez jokatzea saihestu du, eta korporazio onuradunen identitatea lausotzen saiatu da.

2023ko abendura arte Espainiako Gobernuak ez du NGEU funtsen 100 onuradun nagusien zerrenda argitaratu<sup>65</sup>, eta hura Europako Batzordeari helarazi dio. Zerrendan euskal enpresek presentzia handia dute<sup>66</sup>.

64. Ibex 35ean parte hartzen duten euskal enpresak oso aktiboak izan dira prozesu horretan, prentsara heldu diren informazioen arabera. Iberdrola da nagusi, berak aurkeztu baititu NGEU diru-laguntzak jasotzeko aukera duten proiektu gehien: guztira 175, eta horien aurrekontua 30.000 milioi eurokoa da (horretan NGEU funtsak eta enpresak aurreikusitako beste finantzabide batzuk daude). Repsolek eta bere euskal filiala Petronorrek ere 31 proiektu aurkeztu dituzte, 6.000 milioi euroko aurrekontuarekin. Bestalde, Arcelor Mittal enpresak, Espainiako Estatuan dituen hamaika fabriketatik zortzi EAEn eta NFEn dituenak, guztira 1.000 milioi euroko aurrekontua duten proiektuak aurkeztu ditu.

65. Espainiako Gobernuak (2023): **Los 100 mayores perceptores de fondos europeos Next Generation EU han recibido unos 5.100 millones de euros, en torno al 14% del total recibido por España.**

66. Zerrendan bakarrik agertzen da zer osagairi dagokion diru-laguntza bakoitza. Hori ez da oso zehatza funts horien helburua ezagutzeko.

## 20. taula. NGEU funtsen 100 hartzaile nagusien artean dauden euskal enpresak

Volkswagen Navarra	5.819.540,00€	Mugikortasun jasangarria segurua eta konektatua
	21.185.035,00€	Espainiako Industria Politika 2030
Sapa Operaciones S.L.	10.332.719,00€	Espainiako Industria Politika 2030
Irizar S.Coop.	7.390.279,00€	Espainiako Industria Politika 2030
Gestamp Abrera S.A. (Kataluniako filiala)	8.934.542,00€	Espainiako Industria Politika 2030
Multiverse Computing S.L.	1.897.223,00€	Espainiako Industria Politika 2030
Gestamp Bizkaia S.A.	5.400.639,00€	Espainiako Industria Politika 2030
Mercedes Benz España S.A. <sup>67</sup>	55.152.867,00€	Espainiako Industria Politika 2030

Iturria: Egileak

Automobilgintzaren pisu handiarekin, alde batetik, Volkswagen eta Mercedes enpresen filialak aurkitzen ditugu (horiek, hurrenez hurren, Iruñeko eta Gasteizko ekoizpen-ehunak osatzen dituzte neurri handi batean), eta, bestetik, proiektio handia eta hainbat kokapen dituzten baina egoitza nagusia hemen duten enpresak ditugu (Gestamp edo Irizar, kasu)<sup>68</sup>.

2. kapituluan esan bezala, NGEU programaren onuradun nagusien artean ez daude enpresak bakarrik, erakunde publikoak ere badaude. Horiek lizitazioak egiten dituzte gero proiektu horien exekuzioa esleitzeko, eta azken onuradunak ez dira ezagutzera ematen. Horretan mugikortasun jasangarria da nagusi, eta, bigarren maila batean, Administrazio Publikoen digitalizazioa.

67. Funtz mardul horiek HEHn egindako jardueretara bideratzen direla ziurtatzea posible ez bada ere, Gasteiz da multinazionalak Estatuan duen ekoizpen-gune nagusia. Hortaz, pentsatzekoa da baliabide horietako asko lantegi horretan garatutako jarduerara bideratuko direla. Zerbaitegatik aukeratu dute fabrika hura multinazionalaren ibilgailu elektriko berria ekoizteko, **lehendakariak Stuttgartera bisita egin ondoren**. Zentzu horretan, 2024ko otsailean, multinazionalari emandako esleipen bat ezagutzera eman dute, 129,6 milioi eurokoa, eta berariaz Gasteizko lantegira zuzenduta dagoena (ikus 26. taula). Ez dugu diru-laguntza berri hori sartu (ezta 2024an zehar eman diren beste batzuk ere) erabilitako bibliografia iturria bere horretan mantentzeko, izan ere, hura onuradun nagusiak sistematizatzeko ariketa bakarra izan da orain arte gobernuaren partetik.

68. Stellantis automobilgintza multinazionalaren kasua aipatu beharra dago. Enpresak, orain arte, **113,5 milioi** jaso ditu Ibilgailu Elektriko eta Konektatuaren ESEPEaren esparruan bateriak egiteko eta muntatzeko. Diru hori batez ere Figueruelako, Vigoko eta Madrilgo lantegietara bideratuko da. Multinazionala, gainera, gure lurraldean gertatzen ari diren deslokalizazio-prozesu nagusietako baten atzean dago, hain zuzen, Mecaner trokelgintza enpresarena, Urdulizen.

**21. taula. NGEU funtsen onuradun nagusiak diren HEHko erakunde publikoak**

Bilboko Udala	16.404.293,16€	Hiri eta metropoli inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatu baterako txoke-plana
Gasteizko Udala	12.711.189,00€	Hiri eta metropoli inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatu baterako txoke-plana
Iruñerriko Mankomunitatea	10.857.827,39€	Hiri eta metropoli inguruneetako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatu baterako txoke-plana
Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea	6.738.520,91€	Administrazio Publikoen modernizazioa

Iturria: Egileak

Sektore publikoaren presentzia hori eta horrekin datozen azpikontratazio dinamikak, oro har, opakua dira, baina lehen aipatutako Espainiako Gobernuaren argitalpenean Suspertze Planaren esparruan deitutako lizitazioen 50 onuradun nagusiak ezagutzera eman dituzte. Horretan ere, euskal presentzia handia dago, bai kontratatzaileen aldetik bai kontratisten aldetik.

**22 taula. NGEU lizitazioen 50 emakidadun nagusien artean dauden euskal enpresak**

Kontratatzen izena	Tresnaren izena	Erakunde kontratatzailea	Zenbatekoa
UTE CAF SIGNALLING-THALES ESPAÑA	Redacción de los proyectos constructivos, ejecución de las obras, conservación y mantenimiento de las instalaciones de enclavamientos, sistemas de protección del tren, control del tráfico centralizado, sistemas auxiliares de detección.	ADIF-ALTA VELOCIDAD	134.261.672
FERROVIAL CONSTRUCCION, S.A.	Mejora de la accesibilidad en el Barrio de Altamira.	BILBOKO UDALA	1.992.858

FERROVIAL CONSTRUCCION, S.A.	Obras para convertir la actual carretera BI-3741 en un vial urbano, provisto de un itinerario peatonal y diversos miradores (Paseo Mirador Artxanda).	BILBOKO UDALA	3.138.281
IRIZAR, S.COOP	Adquisición de autobuses eléctricos por TMB flota 2022-2024 Lote 3: Autobús urbano articulado eléctrico	TRANSPORTS DE BARCELONA, S.A.	15.980.000
IRIZAR, S.COOP	Suministro al Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián de dos camiones de recogida de residuos sólidos urbanos (RSU).	DONOSTIAKO UDALA	998.000
IRIZAR, S.COOP	Suministro de 50 autobuses eléctricos estándar de 12 metros 30 autobuses adjudicados a Irizar 20 autobuses adjudicados a BYD.	EMPRESA MUNICIPAL DE TRANSPORTES DE MADRID, S.A. (EMT)	14.940.000
IRIZAR, S.COOP	Suministro de 150 autobuses eléctricos de 12 metros a EMT de Madrid en los años 2022 y 2023 lote 1-suministro de 90 autobuses estándar eléctricos con entrega de 45 vehículos en 2022 y 45 en 2023.	EMPRESA MUNICIPAL DE TRANSPORTES DE MADRID, S.A. (EMT)	48.150.000
IRIZAR, S.COOP	Habilitación de 50 autobuses Irizar para cargar mediante pantógrafo invertido.	EMPRESA MUNICIPAL DE TRANSPORTES DE MADRID, S.A. (EMT)	875.000
IRIZAR, S.COOP	Suministro de 5 autobuses eléctricos y 5 puntos de recarga para autobuses de Lleida, dividido en 2 lotes, en el marco del PRTR financiado por la UE con los fondos Next Generation EU.	LLEIDAKO UDALA	2.650.000
UTE AVINTIA- LURPEKO- GYOCIVIL-VIUDA	Obras de ejecución del proyecto de construcción de plataforma de la línea de alta velocidad Madrid - Extremadura. Talayuela - Cáceres. tramo: Malpartida de Plasencia - estación de Plasencia /Fuentidueñas.	ADIF-ALTA VELOCIDAD	52.186.074

UTE SACYR- CAVOSA- MARIEZCURENA	Obras de ejecución del proyecto de construcción de plataforma de la línea de alta velocidad Vitoria-Bilbao-San Sebastián. Tramo: Elorrio- Elorrio. 2018 (on 028/19)	ADIF-ALTA VELOCIDAD	46.756.177
UTE TECSA- DRAGADOS	Obras de Ejecución del Proyecto Constructivo para la implantación de ancho estándar en el trayecto de Astigarraga e Irún. Infraestructura y Vía.	ADIF-ALTA VELOCIDAD	43.788.304

Iturria: Egileak

Beraz, HEHko zenbait enpresa daude, eta horiek, beren tamaina eta gaitasuna bezalako faktoreen arabera, enpresen aldi baterako batasunak osatzen dituzte, kasu batzuetan, enpresa txikiagoen eskutik eta, beste batzuetan, multinazional handiekin. Euskal ekonomia-ehunean lehen mailako enpresak ditugu, hala nola CAF edo Irizar, NGEUren barruan lehentasunezkoa den garraio eta mugikortasun jasangarriaren sektorean garrantzizko kontratuak dituztenak. Gainera, beste enpresa txikiago batzuek enpresen aldi baterako batasunetan parte hartzen dute Espainiako zenbait korporazio handirekin batera, hala nola Sacyr enpresarekin, batez ere eraikuntzan eta Abiadura Handiko Trenean.

Azken finean, administrazioak hainbat sektore pozten saiatzen dira, funtsen zati bat ETEetara eta kooperatibetara bideratuz, eta finantziario horren zati bat izaera publikoko beharrei dagokiela bermatuz. Eta testuinguru horretan, HEHn dauden eta trakzio-ahalmen handia duten multinazional handiek NGEU funtsak bereganatzen dituzte batez ere automobilgintzan, mugikortasun jasangarrian, eraikuntzan eta abiadura handiko trenean.

### 3.4.2. Inbertsioak, megaproiektuak eta burbuilak HEHn

NGEU programak sostengatutako inbertsioen, megaproiektuen eta burbuilen sektorekako identifikazioa inplementazio-prozesuaren ezaugarri den logika bipolarretik abiatzen da. Alde batetik, “kafea denontzat”: baliabideak eragile eta sektore kopuru ahalik eta handienaren artean banatzea eta egoera larrian dauden esparru tradizionalak erreskatatzea. Bestetik, hainbat arazoirengatik estrategikoki identifikatutako sektoreei lehentasuna ematea, batez ere lurraldean puntako izaera dutelako eta/edo orain hegemonikoa den hobi berde eta digitalarekin lotura estua dutelako. Azken horietan zentratuko gara batez ere, arreta automobilgintzan eta mugikortasun jasangarrian, hidrogenoan, energia berriztagarrietan, zaintzetan, aeronautikan, nekazaritza industrian eta uretan jarriz.

NGEU bezalako prozesu zentralizatu batean, Estatuak inbertsio estrategikoenak gordetzen ditu, eta autonomia erkidegoak bigarren mailako deialdiez arduratzen dira. Bigarren horien artean ikuspegi-aniztasuna ikusten da.



Hala, gaur egun (2024) EAeko eta NFEko administrazioek beren eskumenen esparruan indarrean dituzten deialdiak eta lizitazioak aztertzen baditugu, askotariko sektoreak ikus ditzakegu, hala nola turismoa, etxebizitzaren birgaikuntza eta eraikuntza, garraio flotak berritzea, eskualde garapena, mugikortasun elektrikoa edo energia berriztagarriak, eta hartzaile gisa askotariko erakundeak eta partikularrak ditugu.

### 23. taula. 2024an Eusko Jaurlaritzak indarrean dituen diru-laguntza deialdiak

EEE - Ekonomiaren zenbait sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzearekin lotutako pizgarrien programa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan
EEE - PREE 5000 programa: Euskal autonomia erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako energia-birgaitzeko programa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan
EEE - MOVES III PROGRAMA: mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan
Telekomunikazio-operadore laguntzaileek administrazioari jakinaraztea kolektibo kalteberentzako bonu digitalen onuradunen zerrenda Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan
Errepideko garraio-zerbitzuak ematen dituzten bidaiarien garraioko enpresa pribatuak eta salgaien errepideko garraioan esku hartzen duten enpresa pribatuak modernizatzeko laguntzen deialdi publikoa, urriaren 25eko 902/2022 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan
EEE - Ostaturako turismo-enpresen energia-eraginkortasun proiektuetarako laguntzen programa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan
EEE - Errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuen bidaiari eta salgaien garraio-flotak baita garraio pribatu osagarriak egiten dituzten enpresenak ere eraldatzeko laguntza-programa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan

Iturria: [Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila](#)

### 24. taula. 2024an indarrean dauden Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza deialdiak

Mugikortasun eraginkor eta jasangarrirako pizgarrien programa (MOVES II)
Nafarroako Foru Komunitateko toki-erakundeentzako dirulaguntzen deialdia, haur-eskola publikoetan haur-hezkuntzako lehen zikloko plaza berriak sortzeko obrak egin ditzaten 2023-2024 aldiran.
Dirulaguntza SAT N 347 NA Ochoa Narvaiz-i, Undianon meatze-jatorriko hondakindegia bat berreskuratzeko, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.
Nafarroako 20.000 biztanletik beherako ELLetan uraren hiri-zikloa digitalizatzeko dirulaguntzak.

“Landa- eta hiri-eremuetan emakumeei laguntzeko programa” (MRR) finantzatzeko dirulaguntza publikoak.
Turismo-enpresetako energia-eraginkortasuneko eta ekonomia zirkularreko proiektuetarako laguntzak.
Enpresetako bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko flotak eraldatzeko laguntza. Txatar bihurtzea/Ibilgailuak erostea/Atzeraeragina/Trenbideko atoiak erostea.
Ikertzaileak kontratatuzko laguntzak. MRR Investigo 2022 programa.
Iruñerriko errehabilitazio-bulegoak
Nafarroako Erribera Garatzeko Estrategietarako Partzuergoari (Eder Partzuergoa) zuzeneko emakida emateko dirulaguntza, “Nafarroako Erriberagoitia” PSTD egikaritzeko.

Iturria: [Suspertze Planaren deialdien web-bilatzailea](#)

Inbertsio estrategiko horiek zentralizatuagoak dira eta ekoizpen-ehunaren eraldaketa sakonagoa erazteko helburua dute. Hala, ESEPEek erakusten digute zeintzuk izan diren orain arte NGEU programaren lehentasunak HEHn. Ikus dezakegu EAeko eta NFEko gobernuek sustatutako ekimenak –gobernu zentralarekin eta beste lurralde batzuekin borrokan ere– finantzamendua jasotzen hasi direla bide horretatik.

Halaber, korporazioen nagusitasuna are handiagoa da babes bereziko esparruetan, trakzio-eginkizuna betetzen baitute. Izan ere, ekimen horien eskala handiagoak gaitasun material eta inbertsio-ahalmen handiagoak eskatzen ditu. Euskal Herrian errotutako enpresak Estatuko beste enpresa batzuekin antolatzen dira enpresen elkarten bitartez, eta gure ekoizpen eta industria ehunean nagusi diren sektoreak lehenesten dituzte.

### 3.4.2.1. AUTOMOBILGINTZA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Automobilgintza funtsezko sektorea da gure lurraldean. Horretan enpresa multinazional handiak, automobilgintzako osagaien sektoreko korporazio multilokalizatuak eta ETEak eta kooperatibak daude. Ibilgailu Elektroaren eta Konektatuaren (IEK) ESEPEaren protagonista den *Future: Fast Forward* enpresa taldea nabarmentzen da<sup>69</sup>.

HEHn eta Estatuan, hura da NGEU programaren implementazioan gehien aurreratu duten sektoreetako bat. Hala, ibilgailu elektrikoaren baterien sektoreak lehen mailako eginkizuna du hemen.

69. Haren sustatzaile nagusiak Volkswagen eta Seat enpresak dira, beste 52 enpresarekin batera. Horien artean HEHn kokatutako enpresa ugari dago: Iberdrola, Gestamp, Volkswagen Navarra, Azterlan, Glavista, eta abar. Espainiako Gobernuak 2023ko urtarrilean onartu zuen haien proiektua, guztira **377 milioi euroekin finantzatutako 86 proiektu**.

### 25 taula. HEHn finantzaturako NGEU proiektuak. Ibilgailu elektrikoaren bateriak (IEKaren ESEPEa 2. Fasea)

Gestamp enpresak 12,5 milioi euro jaso ditu 2023ko irailean <i>battery-box</i> proiekturako. Kasu honetan Bartzelonako eta Valentziako lantegietan kokaturako bi proiektu dira.
2023ko irailean, 14,7 milioi bideratu dituzte Miñanon kokaturako Basquevolt proiektu publiko-pribatura, litiozko bateriak egiteko. Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, ekimenean hainbat enpresa handik parte hartzen dute, hala nola Iberdrola, CIE Automotive eta Enagas enpresek.
Mobis Automotive Solutions Spain: 12,8 milioi euro Noaingo Garraio Hirian Ibilgailu Elektriko eta Konektatuaren bateriak ekoizteko fabrika berri bat egiteko.
Global Laser Araba, S.L.: 4,8 milioi euro Battery Box delakoa Iruña Okan mihiztatzeko.
Beecycle Reuse & Recycling S.L.: 1,6 milioi euro ibilgailu elektrikoaren bateriak birziklatzeko instalazio bat egiteko Caparrosen.

Iturria: Egileak, honetan oinarrituta: Espainiako Gobernua (2023):  
[Conoce los proyectos de producción de baterías aprobados en el PERTE VEC II](#)

Litiozko baterien arlo espezifikoaz harago, IEKaren ESEPEak beste ekimen batzuk finantzatu ditu HEHn, hala nola Basquevolt bezalako PPP estrategikoak eta Mercedes transnazionalari emandako diru-laguntza handia, horiek trakzio-proiektuak baitira.

### 26. taula. HEHn finantzaturako NGEU proiektuak. Ibilgailu elektrikoaren balio-kate industrialak (IEKaren ESEPEa 2. Fasea B lerroa)

Jema Energy S.A. enpresak 1,2 milioi euro jaso ditu Araban lehen mailako hiru proiektu garatzeko, batez ere ibilgailu astunetarako teknologiei lotuta.
Basquevolt ekimenak 10,4 milioi euro jaso ditu, berriz ere bateriei buruzko bi ikerketa-proiektu garatzeko.
Irizar enpresari 13,9 milioi euro eman zaizkio autobus elektrikoaren arloan hiru ikerketa-proiektu garatzeko.
Mercedes-Benz España enpresak 129,6 milioi euro jaso ditu Gasteizko fabrika bere furgoneta eta monobolumen elektriko berriak garatzeko.
Mugape S.L. enpresak 329.674 euro jaso ditu ibilgailu elektrikoaren piezen bizitza teknika luzatuko dituzten teknologia garatzeko.

Iturria: Egileak, honetan oinarrituta: Espainiako Gobernua (2024):  
[Industria concede los primeros 10 proyectos tractores de la línea B del PERTE VEC II](#)

Zalantzarik gabe, aipatutako azpen deialdian argi geratzen da euskal automobilgintzak IEKarenean ESEPEaren duen garrantzia; izan ere, euskal enpresek horren zati handi bat hartzen dute. Gainera, programaren aurreko faseetan beste ekimen batzuk finantzatu dituzte, esate baterako, ibilgailu elektrikoetarako propulsiio-sistemen garapen teknologikoa, Gipuzkoako Sapa enpresaren eskutik. Horrek Estatuko funtsen hartzaile nagusien artean kokatu du enpresa hura (ekipamendu militarren salerosketan ere parte hartzen duena). Halaber, apustu instituzional handi batzuk finantzamenduaren zain da. Horixe da hasiera batean *Euskadi Next 2021-26* planean proposatu zen proiektu baten kasua, Automobilgintza Fabrikazio Aurreratuaren Ikerketa Zentroa, alegia. Hura, NGEU laguntzak jasotzekotan, 2025ean inauguratuko da<sup>70</sup>. Nolanahi ere, Espainiako Gobernutik esan dute funtsak ematen jarraituko dutela, gutxienez 2024an izango den IEKarenean ESEPEaren 3. fasearekin.

ESEPEen alorretik kanpo, mugikortasun jasagarriak deialdi eta lizitazio kopuru handia ekarri du. Esate baterako, Bizkaiko Foru Aldundiak 248.000 euro jaso zituen NGEU bitartez 44 ibilgailu elektriko erosteko. Halaber, Abiadura Handia NGEUren protagonista nabarmena izaten ari da Estatu mailan, ADIFek horretarako kudeatzen dituen funts masiboek erakusten duten bezala. Hala, euskal AHTaren zenbait zatiren eraikuntza bide horretatik finantzatzen ari da, eta, bide batez, adreiluaren ekonomia elikatzen dute.

Automobilgintzak beste edozein sektorek baino hobeto erakusten du NGEU zeharkatzen duen kontraesan nagusia: alegia, sektoreko korporazio handietan oinarritutako inbertsio publikoko estrategia desarrollistaren eta trantsizio ekosozialaren arteko bateraezintasuna.

Hala EAEko, NFEko eta Estatuko agintarietako sektorea erreskatatu eta nazioarteko agertokian jarri nahi izan dute, gaur egun duten jabetza egituretan oinarrituta eta beren negozio bolumenak babesten saiatuz. Hau da, epe laburreko ordezkapen hutsa: errekontzako kotxetik kotxe elektrikorara, beste guztia ukitu gabe.

Horrek talka egiten du trantsizio ekosozial baterako eman behar diren pausoekin: ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea, garraio publikoa sustatzea, eta sektorearen lan eta ekoizpen birmoldaketa. Izan ere, sektoreko enpresarik handienek bakarrik aterako diote probetxua ibilbide laburreko ekimen horri, zeren ibilgailu elektrikoek fabrikazio kostuak ezinezkoa egiten baitu sektore horretarako sarbide orokorra.

Testuinguru horretan, tokiko instituzioek eta instituzio foralek ibilgailu elektrikoak erosten dituzte, eta, erosketa horiek beharrezkoak badira ere, fabrikazioa eta merkaturatzea kontrolatzen duen enpresa-hun hura elikatzen jarraitzen dute. Hala, enpresa horiek sarbide pribilegiatua dute deialdietara eta lizitazioetara. Eta hori guztia kontratazio publikoaren bidez

---

70. Jundizen kokatutako zentro publiko-pribatu bat da. Horretan Eusko Jaurlaritzak Mercedes Benz, Gestamp eta Mondragon Corporation enprekin aliatuko da. Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, 12,5 milioi euro emango ditu, eta horrez gain beste 8 milioi bideratuko dira eraikina eraikitzeko, SPRILURen eskutik.

Halaber, nabarmentzekoa da da enpresek eta administrazioek Abiadura Handia mugikortasun jasangarriko ardatz estrategiko gisa sartzea lortu dutela, baita euskal AHTa ere, tokiko eraikuntza enpresa batzuen mesederako. Izan ere, horren ondorioak, lurraldearen narriadurari dagokionez, erabat frogatuta daude.

### 3.4.2.2. HIDROGENOA

Bigarren eremu garrantzitsu bat hidrogenoarena da. Horretan *Spanish Hydrogen Network* elkarteak dabil, Repsol buru duela, bere Filiala den Petronorren bitartez. Gainera, autonomia-erkidegoetako administrazioek eta foru administrazioek ere parte hartzen dute ekimen horretan. Elkartearen helburua Hidrogenoaren Euskal Korridorea (BH2C) posizionatzea da. Hura, hain zuzen, Bilboko portuan kokatutako *hub* bat da<sup>71</sup>.

Hidrogenoaren inguruan merkatu bar irekitzera bideratutako funtsen banaketak aurrera jarraitzen du Energia berriztagarrien, hidrogeno berriztagarriaren eta biltegitzearen (EBHB) ESEPEaren esparruan (IEKaren ESEPEa baino astiroago bada ere, agian teknologia horren berritasuna eta ziurgabetasunaren ondorioz). Testuinguru horretan, BH2Ck lehia gogorra du mediterraneoko eskualdearekin eta bertako H2Med proiektuarekin Europako merkatuen aurrean nagusitasuna lortzeko<sup>72</sup>.

Zailtasunak gorabehera, proiektua 2023ko azarotik dago martxan. Haren sustatzaileak Energiaren Euskal Erakundea, Petronor, SENER eta Nortegas dira. Urte horretako abenduan, H2 Pioneros programaren bigarren deialdiko esleipena ezagutzera eman zuten<sup>73</sup>. Deialdia teknologia horren eta Estatuko portu-azpiegituren arteko loturan zentratzen da. Horretan, Bilboko Portuan kokatutako proiektu batek – BH2C ekimenean sartuta dagoena– 13,25 milioi euroko diru-laguntza jaso zuen<sup>74</sup>. Proiektua Petronor, IBIL eta beste garraio enpresa batzuen artean osatutako partzuergo batetik sortu da.

Hura ez da hidrogenoren arloan NGEU programarekin lotura duen HEHko ekimen bakarra. Izan ere, 2023ko apirilaren 3an, H2 Pioneros programaren lehen deialdian<sup>75</sup>, 150 milioi euro eman zizkieten industriari, garraio astunean eta deskarbonizazio zaileko beste sektore batzuetan hidrogeno

71. Gobernu autonomikoak eta foralak Energy Intelligence Center (EIC) zentroari eta Meatzaldeko Zentro Teknologikoari emandako bultzadaren eskutik. Horiak Muskizeko findegiak lideratutako bi proiekturen parte dira: lehenengoa, gasa eta hidrogenoa nahastuz erregai sintetikoak ekoiztea, karbonoa harrapatzeko teknikaren bitartez. Bigarrena, erregai solido berreskuratua ekoiztea, batez ere hondakinen pirolisiaren bitartez.

72. 2023 hasieran, BH2C ekimenak berak ezagutzera eman zituen Europako Batzordearen Espainiako Estatuko bozeramailearen hitzak; hain zuzen, proiektuak “**Batzordearen laguntza izango zuela**”. Hala ere, 2023ko maiatzeko albisteek kontrakoa iradokitzen zuten, EBHBaren ESEPEak egindako lehen deialditik **kanpo geratu baitzen** BH2C.

73. Espainiako Gobernuak (2023): **Transición Ecológica adjudica los 150 millones de la segunda edición de H2 Pioneros a 12 nuevos proyectos innovadores de hidrógeno renovable.**

74. Aguirre (2023): **El Gobierno central inyecta 13,2 millones a un proyecto de hidrógeno en el Puerto de Bilbao**, cronicavasca.com

75. Espainiako Gobernuak (2023): **Conoce las ayudas al impulso del hidrógeno renovable.**

berriztagarria ekoizteko eta kontsumitzeko bideragarritasun komertziala duten 19 proiekturi. Horietako batek -GreenH2CATudela, Tuterako Nekazaritzako Elikagaien Hiriak sustatua- 2,9 milioi euro inguru jaso zituen. Programaren bigarren edizioa 2023ko abenduaren 22an ebatzi zen, eta aipatutako Bizkaiko ekimenaz gain, 15 milioi eurekin lagundu zuen Valle H2V Navarra proiektua. Hura Zangozan garatu da, AccionaPluk enpresaren eskutik -Accionaren filiala hidrogenoaren sektorerako-. Bere aldetik, Nordex Group korporazio europarrak 1,5 milioi euro jaso ditu Barasoainen duen elektrolizagailuen fabrikarako<sup>76</sup>.

Hidrogeno berdea agenda korporatiboan gainditu gabeko ikasgaietako bat da NGEU programari dagokionez. Hainbat lagunek ohartarazi dutenez, iturri berriztagarrietatik sortutako hidrogenoak energia elektrikoa ordeztzeko zailtasun teknologikoak daude gaur egun.

Egia hori ezagututa ere, korporazio energetikoek eta administrazioek teknologia horren aldeko apustu sendoa egin zuten. Argi geratzen da, beraz, hidrogeno berdea inbertsioak, diru-laguntza publikoak eta azpiegiturak bideratzeko burbuila dela, eta ez duela alternatiba efektiboak garatzeko aukerarik, trantsizio ekologikoari dagokionez. Beti lankidetzara publiko-pribatuaren ildotik, BH2C programak erakusten duen bezala, hobi horren inguruan sortzen ari den nazioarteko arkitekturan posizionatu nahi dituzte korporazioak (kasu honetan, Repsol-Petronor). Halaber, portu-azpiegiturei ematen zaien garrantzia handiak aditzera ematen du ez dagoela ekonomia iraunkortasun terminoetan birlokalizatzeko asmorik; aitzitik, nazioarteko merkatuak eta balio kate globalak indartu nahi dituztela.

Gaur egun, eta hainbat luzapen eta arazoren ostean, badirudi NGEUren zati bat BH2C programara bideratzen hasi dela. Nolanahi ere, banatu gabeko funtsak daude arlo horretan; hortaz, momentuz ez da oso argi geratzen emandako kontzesioa salbuespena edo apustu estrategikoa den. Geratzen diren funtsak bideratzen ez badira ere, ekimena abian dago, hortaz, falta den inbertsioa enpresa sustatzaileen kontura izango da; baina ziurrekin laguntza sendoa izango dute administrazio autonomiko eta foralen diru publikoaren bitartez, beren bideragarritasuna eta errentagarritasuna bermatzeko. Nolanahi ere, Espainiako Gobernuak 2024ko otsailean iragarri du arlo horretako 10 proiektu handi finantzatuko direla NGEU funtsen bitartez. Horietako bat EAEn izango da, eta suposatzea da BH2C programan kokatuko dela<sup>77</sup>.

### 3.4.2.3. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

EBHBaren ESEPE horren esparruan ere, energia berriztagarriak bultzatzeko laguntzak heltzen hasi dira HEHra, batez ere eolikoetara eta fotovoltaikoetara bideratuta (horiek hazkunde esponenziala izan dute azken urteotan). NGEUk joera hori finkatuko du orain, are indar handiagoz REPowerEU

76. Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua (2023): [Programa H2 Pioneros](#).

77. Espainiako Gobernuak (2024): [El presidente del Gobierno anuncia ayudas por 900 millones para proyectos de hidrógeno renovable](#).



ekimena agertu zenetik. Hala, Nafarroak, ofentsiba berri horren buru izateaz gain, NGEUk lagundutako ekimen nagusi horietako batzuk hartu ditu.

Beraz, Trantsizio Ekologikoko eta Erronka Demografikoko Ministerioak, 2023ko abenduan, 4.098.181,56 euro eman dizkie energia biltegitatzeko bi proiekturi lurralde horretan<sup>78</sup>. Horietako bat Tuterako Montes de Cierzo I parke eolikoa da, ia 2,2 milioi euroko laguntza jasoko duena. Bestea, Corellan eraikitzen ari den Corral de Molino I parke eoliko-fotovoltaikoa da, 1,9 milioi euro inguru jasoko dituena. EAEn aldiz, Aixear bezalako proiektuak (Energiaren Euskal Erakundea eta Iberdrola), ingurumen lizentziak eta beste tramite batzuk aurreratzen ari dira Araban sustatzen dituzten hiru parkeetan. Horiek 2026rako espero dira, Europako funtsak noiz heltzen diren arabera.

Energia berriztagarriak, batez ere sektoreko enpresa handiek daramatzaten makroparke eolikoak eta fotovoltaikoak, Nafarroako eta, gero eta gehiago, EAeko gizarte gatazken erdian kokatzen dira gaur egun. Aixear bezalako proiektuak beren ekimenak lurraldean kokatzeko lehia irekian daude beste multinazional batzuekin, hala nola Statkraft edo Capital Energy enpresekin. Izan ere, lurraldean horrelako 61 ekimen inguru daude proiektatuta. Beraz, sektoreak gero eta eginkizun handiagoa izango du gure ekoizpen ehunean, eta ziurrenik NGEU bidezko diru-laguntza gehiago jasoko ditu horren inplementazioan zehar<sup>79</sup>.

Trantsizio ekosozialeko terminoetan, sektore estrategiko baten aurrean gaude, hura baita energia fosilak ordeztzeko eta, hortaz, ekonomia deskarbonizazioa lortzeko bide nagusia. Baina, gaur egun, burbuila prozesu batean dago, sektorea monopolio korporatibo baten menpe baitago.

Enpresa handiak olatu hori hartzen saiatzen ari dira, ahalik eta makroinstalazio gehien sustatuz eta horretarako diru-laguntza publikoak bereganatuz. Baina ekoizpen hori ez da ekonomia fosila gaintzen laguntzen ari; aitzitik, harekin bat egiten ari da. Hau da, berehalako irabaziak ekartzen dizkie enpresei baina oso eragin gutxi izaten ari da energia eta ekoizpen eredia aldatzeko. Espainiako Estatutik energia garbi hori esportatzeko asmoa ere aipatu beharra dago; izan ere horrek merkatu globaletan sartzera helburua du, trantsizio ekosozialaren aurka bada ere. Gainera, korporazioek parke handiak nahiago dituzte, eta horrek estraktibismo neokolonialeko prozesuak, lurraldeen narriadura eta plangintza oso desordenatua dakartza eta, hortaz, erresistentzia herritarrak pizten ditu. NGEU programak komunitate energetiko lokalizatuagoak ere finantzatzen baditu ere, horiek ez dira ESEPEaren muina.

78. Lurralde Politikako Ministerioa (2023): [El MITECO concede 4 millones de euros a dos proyectos navarros de almacenamiento conectado con plantas de generación renovable.](#)

79. Sektoreko multinazional nabarmenek, esate baterako, Siemens Gamesak, Europako beste finantza-tresna batzuetatik diru-laguntzak jasotzen ari dira, hala nola EBren Berrikuntza Funtsetik. Hobia zabaltzeko logika hedakor hura egoera zailean dauden korporazioen erreskatearekin uztartzen da.



#### 3.4.2.4. ZAINZA-LANAK

Kontuan hartu beharreko laugarren eremua zaintza-lanak dira. 2023ko azaroan ezagutzera eman zuten Ekonomia sozialaren eta zaintzen ESEPEari dagokion laugarren ordainketa egingo zela. Ia 1.1000 milioi, eta horietatik EAeri 48 milioi dagozkio, hau da, % 4,4. Guztira, ESEPE osoan, 119 milioi euro bideratuko dira hiru probintzietara. Ardatz nagusietako batzuk egoitzak modernizatzea eta etxeko arreta hobetzea izango dira<sup>80</sup>.

Abian jarri dira lankidetzak publiko-pribatuko proiektu estrategikoak, adibidez, Osasunberri<sup>81</sup>, azkenean Europako funtsak jasoko dituzten ala ez jakin gabe. Dena den, 2023ko otsailean, Aspiazu sailburuak ziurtzat ematen zuen NGEUren finantziarioa. Zain daude beste proiektu nabarmen batzuk ere, hala nola Nagusi Intelligence Center edo ZainLab laneko prestakuntzarako eta bitartekaritzarako ekimena, Araban.

Beste batzuek, aldiz, laguntzak jaso dituzte dagoeneko. Esate baterako, EtxeTIC –etxean geratzeko aukera emateko helburua duen laguntza-zerbitzu digitalizatua– NGEU funtsekin finantzatu da erabat (22,4 milioi 2021-2024 aldirako); edo Erromoko Belaunaldi arteko Zentroa (Getxo), 16 milioi euroko aurrekontuarekin. Horretatik, NGEUk % 82,5 ordainduko du<sup>82</sup>.

Zaintza-lanen merkantilizazioa funtsezko erronka da, herritarron zaharkitze arinak eta zerbitzu publikoen azpikontratazioak negozio hobi garrantzitsua sortu baitute. Izan ere, zaintza oinarritzko premia da, eta horrek enpresa eta funtsentzat oso erakargarria den merkatu gatibua sortzen du. NGEUk merkantilizazio horretan sakontzen du, eta sektorearen narriadura ekarri duten lankidetzak publiko-pribatuko logikak sustatzen ditu; kasu honetan, digitalizazioa azpimarratuz.

Beraz, finantzatutako proiektu nabarmenetako batzuek, hala nola EtxeTIC ekimenak, dauden beharrei erantzuten diete baina baliabide publikoak husteko logika estruktural batetik, zaintza-lanen familiarizazioa sustatuz (batez ere emakumeen lepo) eta baliabide nahikoak ez dituzten horiei egoitzetara jotzeko asmoa kenduz.

Zentzu horretan, egoitzen sektoreak NGEU funtsak jasotzen dituenek, HEHko sektorearen karakterizazio orokor bat egin behar dugu. Hau da, egoitzek gero eta gehiago eskatzen den zerbitzu bat ematen dute, orokorrean kudeaketa foralekoak dira, eta azpikontratazio-maila handiak dituzte. Hala, Bizkaian zaintzaren merkantilizazioari etekina ateratzen dioten enpresek izen-abizenak dituzte<sup>83</sup>: Adriano Care eta DomusVi bezalako inbertsio-funtsak eta multinazional atzerritarrak; IMQ, Ugatzi,

80. Cárcamo eta Rodríguez (2022): [El Gobierno inyecta 48 millones a Euskadi para mejorar los cuidados a mayores](https://www.elcorreo.com), elcorreo.com

81. Osasunberri osasun industriaren balio-katea indartu nahi du, eta ekimenean EAeko eta NFEko hainbat erakundek parte hartzen dute, horien artean, administrazio biek eta sektorean erreferente diren Biolan, IMQ, Cinfa, Quiron eta Tecnalia enpresek, besteak beste.

82. Bizkaiko Foru Aldundia (2023): [Europako fondoek gaurkotatzen](#).

83. Martí eta Pozzobon (2023): [El negocio de las residencias en Bizkaia](#), OMAL-Paz con Dignidad.

Vitalitas eta lurraldean errotutako beste osasun-enpresa batzuk; eta abar. Opakutasuna gorabehera, pentsatzekoa da erakunde horietako batzuek NGEU funtsak jasoko dituztela, zuzenean edo zeharka.

### 3.4.2.5. AERONAUTIKA

Aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, ESEPE aeroespazialaren aurrekontua izan da gehien hasi direnetako bat. Birposizionamendu hura zuzenean islatzen ari da EAEn, izan ere, sektore aeronautikoak oso enpresa-ehun garatua du gure lurraldean.

Hala, 2023ko hasieran ezagutzera eman zuten NGEU funtsak jasoko dituzten proiektu aeronautikoen % 25 EAEn daudela<sup>84</sup>. Hala, hamaika enpresa izango dira diru-laguntza horien onuradunak, haien artean sektorean posizio nabarmena duten ITP, Aernova, Aciturri eta Danobat enpresak. Hala, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak aukeratutako 31 proiektuetatik zortzi EAEn burutuko dira, eta aipatutako enpresek Programa Teknologiko Aeronautikoaren (PTA) esparruan banatutako laguntzen % 36 hartuko dute (118,2 milioitik 42,9)<sup>85</sup>.

Estrategia horren diseinu publiko-pribatua argia da eta gobernu autonomikoa gainditzen du: 2023ko maiatzean, Pedro Sanchezek Arnovaren instalazioak bisitatu zituen Miñanoko Parke Teknologikoan. Enpresak, garai hartan, NGEUK finantzatutako bi proiektu zituen, guztira 2,5 milioi eurokoak.

Dudarik gabe, HEHko sektore estrategikoetako bat da, eta EAEn pisu handia du. Sinbiosi publiko-korporatiboa oso nabarmena da hemen, hura administrazioarekiko menpekotasun handia duen sektorea baita. Beraz, ulertzen da ESEPEen aurrekontuan gero eta garrantzia handiagoa izatea. Ez dago deskorporatibizatze inolako asmorik, kontrakoa baizik. Zentzu horretan, bai ITPk eta bai Aernovak gatazka sindikal gogorak izan dituzte azken urteotan, sindikatuek justifikaziorik gabekotzat jo baitituzte enpresa horiek egindako erregulazio espedienteak eta aldi baterako erregulazioak. Hala ere, NGEU funtsak jasotzen jarraitu dute.

Trantsizio ekosozialari dagokionez, ekoizpen eta lan birmoldaketa sakona behar duen sektore batez ari gara; beharrezkoa baita aireko joan-etorriak nabarmen murriztea. Horrek instituzioen ikuspegi desarrollistarekin talka egiten du, haiek sektorea mantendu eta bultzatu nahi baitute, eta logika horretan dauden NGEU funtsak erabiltzen baitituzte.

### 3.4.2.6. NEKAZARITZA INDUSTRIA

Seigarrenik, funtsezkoa da nekazaritza industriari erreparatzea. Inbertsioak Nafarroara bideratu dira batez ere, aldeztatik sektore horretan espezializatuta baitzegoen. Hala, San Adrianen (Erribera) kokatutako Teknologia eta Elikadura Segurtasun Zentro Nazionala *Spain Food Valley*

84. Irigoyen (2023): [Euskadi acoge el 25% de los proyectos aeronáuticos que recibirán fondos de la UE](#), elcorreo.com.

85. Pereda (2023): [Aernnova refuerza su ingeniería en Zamudio y cierra su planta en Sevilla](#), cronicavasca.com.

enpresa-elkartearen sustatzaile nagusia da<sup>86</sup>. Elkarre hura 2023ko martxoan jarri zen abian, eta, dagoeneko, 28 proiektu aurkeztu ditu Nekazaritzako Elikagaien ESEPEaren esparruan, guztira 37,3 milioi biltzen dituztenak. 2023ko irailean, 13,5 milioi jaso zituen diru-laguntzetan, “nekazaritzako elikagaien industriaren lehiakortasuna hobetzeko, digitalizazioaren, trazabilitatearen eta elikagaien segurtasunaren bidez, eta iraunkortasunaren bidez”<sup>87</sup>.

Aitzitik, ESEPE hori presentzia txikiagoa du EAEn. Bertan, zalaparta handiz iragarritako zenbait proiektuk (adibidez, Basordaseko piszifaktoria) uko egin diote NGEU funtsak eskatzeari, ez baitute inbertitzaile nahikorik aurkitu<sup>88</sup>. ESEPEa egituratzen duten partzuergo handietan EAEko enpresak daude –adibidez, Multiverse Computing, estatu-mailako From Green To Healthy partzuergoari digitalizazio arloan laguntzen diona–, baina ez modu nabarmenean. Nolanahi ere, ESEPEak EAEko 67 enpresari lagundu die, 16 milioi euroekin<sup>89</sup>. Zenbateko apala da, eta gainera hainbat banaketa kate handi, hala nola Eroski, ESEPEtik kanpo geratu dira.

ESEPEek, beren izaeragatik, tamaina handiko enpresen parte-hartzea lehenesten dute, horiek gaitasun material eta inbertsio ahalmen handia dutelako, nahiz eta bide horretan ETEekin, kooperatibekin edo beste enpresa batzuekin joan daitezkeen. Beraz, ez dago nekazaritzako elikagaien industriaren eredu korporatiboa aldatzeko eta ekonomia baserritar desmerkantilizatuak sustatzeko asmorik. Aitzitik, lehiakortasun irizpideak indartu nahi dituzte, nekazaritzako prozesu industrialen digitalizazioa bezalako elementuak azpimarratuz. Horrek dagoen egoeran sakontzea esan nahi du, irizpide tekniko-enpresarialen bitartez. Beraz, mundu ikuskera hura Nafarroara ekartzen da nekazaritzako elikagaien arloan duen ehun garatuagoagatik.

### 3.4.2.7. URA

Azkenik, uraren gaia landuko dugu. Nafarroak<sup>90</sup>, 2023ko urrirako, 8 milioi euro jaso ditu<sup>91</sup> digitalizazioaren eta uraren zikloaren ESEPEaren esparruan, Nilsa enpresa publikoak eta Jurramendiko eta Iruñerriko Mankomunitateek zuzendutako ekimen baten bitartez. Aitzitik, Nafarroako Gobernuaren uraren arloko proiektu nagusia –Nafarroako Kanala– NGEU funtsak eskuratzeko aukeratik kanpo utzi behar izan da azkenean, gutxienez 2028rarte luzatuko baita.

86. Estatu osoko 17 enpresak osatzen dute, horietatik batzuk Nafarroakoak dira: Grupo Alimentario IAN taldeko Alinter, AMC Natural Drinks, Consultoría y Comunicaciones de Navarra-CYC, Fruit Tech Natural, Globalimar, Greentech, Grupo La Caña, Huercasa, Iberfruta-Muerza, Kimitec, Lazaya, Medina, Natac, Caviar Pirinea, Urzante, Viscofan eta Viuda de Cayo.

87. Espainiako Gobernuak (2023): [Conoce los proyectos tractores de apoyo a la industria alimentaria seleccionados en el PERTE Agroalimentario.](#)

88. Proiektu hura salatua izan zen; izan ere, Iberdrola Lemoizko zentral nuklearraren instalazioak eraisteko arduratik libratzeko ahalegin bat omen zen, lursaila ibilbiderik gabeko proiektu baterako hartu bitartez. Berriz ere, EAEko administrazioa multinazional horren zerbitzura.

89. EFE (2024): [Euskadi recibe 538 millones para 283 empresas de los PERTE del Ministerio de Industria](#)

90. Nekazaritza-jarduera ureztatu gehien dituen lurraldea da, eta, gainera, HEHko desertifikazio arriskurik handiena du (batez ere bere hegoaldean).

91. Diario de Navarra (2023): [Navarra logra un PERTE de 8 millones para una mejor gestión del agua.](#)

NGEU programak uraren kudeaketa-eredu publiko-pribatua bermatzen eta bere egiten du. Eredu hura Bilbao Bizkaia bezalako partzuergoen jardueran oinarritzen da. Izan ere, eskualdeko partzuergoak desagerrarazteko eta xurgatzeko egin duen presio etengabearen egiaztatzen da haren bokazio korporatiboa. Beraz, zentzu horretan, ez dago berritasunik edo kontraesanik.

Berritasuna digitalizazioan datza, eta hura azpiegitura erraldoiak mugatzeko modu gisa aurkezten da. Hala ere, Nafarroako Gobernuak ingeniari makroproiektu bat ezarri nahi izan du. Hura, nekazaritzako ustiategi handiei bakarrik mesede egiteagatik kritikatu izan da, eta duela 30 urte ekologisten aurkaritza piztutako Itoizko urtegiaren ahaide da.

Azken finean, eta ondorio gisa, euskal korporazio nagusiek NGEU funtsak bereganatzen dituzte, bi elementu hauek uztartzen dituen ikuspegiaren bitartez; alde batetik, gure lurraldearen espezializazio produktiboaren oinarrian egon diren enpresak eta sektoreak indartzea, eta, bestetik, trantsizio berde eta digitaleko negozio-hobi berriak zabaltzea, diru-laguntza masiboen bitartez. Horretarako, benetako trantsizio ekosozialaren gainetik pasatzen dira, izan ere, HEHn, NGEU ez da trantsizio hura batere sustatzen ari.

## 4. ONDORIOAK

Europar Batasuna, hasiera-hasieratik, “gozoki pozoitsua” izan da ezkerreko gizarte mugimendu eraldatzaileentzat. Gaur egungo arkitektura komunitarioaren aurrean alternatiba sistemikoak eraikitzeko zailtasun objektiboa Damoklesen ezpata moduko bat bilakatu da; izan ere, oso konplexua da lortutako integrazio ekonomiko-finantzarioa atzeratzea. Aldi berean, bakearen eta giza eskubideen kontakizunak nolabaiteko legitimitatea du oraindik herri mailan, nahiz eta politiken esparruak kontrako noranzkoan egiten duen gero eta modu argiagoan.

Gainera, gaur egun muturreko eskuin euroeszeptikoak duen gorakadak daukagunaren alde borrokatzera bultzatzen gaitu, Europa neofaxismoen aurkako trintxera gisa ikusten duen imajinario edulkoratua eta progresista eguneratuz.

Horixe da HEHn eztabaida hegemonizatzen duen esparru politiko estua. Denbora luzez, barne gatazka konpontzeko inperatiboen ondorioz, negoziazio-prozesuen aurrean konplizitateak eta bitartekaritzak bilatzeko esparru gisa ikusi da Europar Batasuna. Gobernantza neoliberalerako eredu horren aurkako posizionamenduak, hortaz, alde batera utzi dira.

EBren proiektuaren gaineko ikuspegi atsegin eta onbera hura itzuli egin da, 2008ko eztrandak ekarritako herstura politikaren aurrean agertutako kritika laburraren ondoren, eta agenda berde eta digital berriak eragindako ustezko biraketa neokeynestar baten eskutik dator.

Pandemiaren shocka NGEU bezalako tresnak sustatzeko haztegia izan zen. Horiek lantzaren punta izan behar zuten, jasangarritasuna gero eta garrantzitsuagoa zen momentu berri batean. Digitalizazioa aukera askatzaile gisa aurkezten zen, politika hedakorrak garatzen ziren, EHIa eta zor mutualizatua bezalako lerro gorriak ezartzen ziren eta inbertsio publiko masiboa sustatzen zen, murrizketen ordez.

Hala, agenda berri bat proposatzen zen, eta inor ezin zen biraketatik kanpo geratu. Hausturarik gabeko adostasuna behartzen zen “momentua ondo irakurtzeko” eta sortzen zen “abagune” neokeynestarra baliatzeko. HEHko ezkerrearen zati bat, batez ere parlamentuan parte hartzen duena, jarrera horietan kokatzen da, baina gure txostenaren arabera, jarrera horiek ez diote muturreko eskuinari aurre egiten eta ez garamatzate etorkizun askatzaile batera.

Zentzu horretan, Europako agenda berriaren azterketa integraletik –helburu estrategikoetatik NGEU bezalako tresnetaraino–, honako ondorio hauek nabarmentzen ditugu.

1.

EBren kanpo eta barne agendek elkarrekiko koherentzia sakona dute, baita atzean duten proiektu europarrarekiko ere: botere korporatiboa indartzea erabateko lehentasuna izan da une oro. Agenda berria balizko trantsizioaren kontakizuna ezartzeko ahalegin etsia izan da, krisi sakoneko eta beste potentzia batzuekiko atzerapeneko testuinguru batean. Kontakizun horren bitartez, gaur egungo ekaitz perfektuaren erantzukizunak ezkutatu nahi izan dituzte, eta benetako trantsizio ekosoziala lortzeko behar diren eraldaketa sakonak ekidin nahi izan dituzte. Agenda horrek, beraz, “trantsiziorik eza” bultzatzen du, hondamendira garamatzen kapitalismo berde-oliba eta digitala: geldialdi ekonomikoa, muga biofisikoak gainditzea, eremu komuna desegitea, estraktibismo neokoloniala, neofaxismoen aurrerakada eta gerrako erregimena hedatzea.

2.

NGEU izan zen europar agendaren apustu berdea eta digitala gauzatu zuen lehenengo tresna. Jasangarriagoa eta inklusiboagoa zen kontakizun ofizial batean oinarrituta, bere jarduketara, berriz ere, Europako langile-klasea interes korporatiboen aurrean diziplinatzen ariketa bat izan da. Kapitalizazio bereziko merkatu-hobi global berriak bilatzea, sektore kritikoak birmoldatzea eta mota guztietako megaproiektuak ugaritzea izan dira haren helburuak, eta inbertsioa eta aliantza publiko-pribatuak dira programa ezartzeko modu nagusiak. NGEU planaren identitate horrek eta haren gobernantza zentralizatuak erakusten dutenez, programa “Bermudetako triangelu” bat da gizartearen gehiengoentzat: kontrarreforma sozialak, bideragarritasun zalantzarikoko inbertsioak, zorra handitzea, eta burbuilak eta funts publikoak espekulaziorako bereganatzea. Gainera, NGEU programak erabiltzen zuen win-win trantsizioa hizkera atsegina alde batera geratu da eta, bere ordean, RepowerEU programa fosila eta belizista dugu. Beraz, NGEU programa sirena kantu bat izan zen, eta haren soinua indarra galdu du.

3.

NGEUren etorrerak erabakitzen eremuetatik baztertu ditu estatu-mailaz beheko organoak. Hala ere, elite ekonomiko eta politikoek interes handiz hartu dute, programak haien interesak bermatzen baititu; hau da, euskal botere korporatiboa nazioarteko egoera zailean posizionatzen saiatzea, beste edozein gauzaren gainetik. Zentzu horretan, argia da Bermudetako triangeluaren hiru erpinen inpaktua: langile klasea lan erreforma, pentsioen erreforma eta erreforma fiskala jasaten ari da, baita kontratazio publikoko irizpideen desegitea; zorra eskala guztietan handitzeak hersturazko etorkizuna iradokitzen du; eta azkenik, funts publikoak bereganatzen dituzten hainbat sektore ez dira ez errentagarriak ez bideragarriak, prekarietate gero eta handiago dute, kontrol autoritarioa erabiltzen dute, ez dira jasangarriak eta oro har, trantsizio ekosozialeko edozein prozesuren oinarritzeko printzipioen aurka jarduten dute.



Europako agendaren eta haren tresnen errealitatea, beraz, Europar Batasunaren inguruan dagoen kontakizun ezti eta onbera horretatik urrun dago. Are gehiago Ukrainako gerraren, Gazako genozidioaren eta energia-horniduraren krisiaren ondorioz agertutako parametro agresiboak, belizistak eta neokolonialak kontuan hartzen baditugu. Hala, parametro horien barruan aldaketa politiko eta sozialeko ikuspegiek galtzekoa dute.

Azken finean, berrarmatze teoriko baten eta ezker politiko, sozial eta sindikalaren mobilizazioaren premia dugu, Europa osoan eta HEHn. Estrategikoa da agenda kritiko bat sortzea, agenda partekatua, internazionalista eta EBren gaur egungo arkitekturari aurre egiten diona. Baita alternatiba egingarriak bultzatzea ere, instituzioetatik eta instituzioetatik kanpo. Europako herrien emantzipazioa lortzeko Europar Batasunaren dominazio eta esplotazio arkitekturari aurre egin behar diogu, argi eta garbi, Euskal Herritik eta gizartea errotik eraldatzeko borrokatzen diren munduko beste herri guztiekin batera.





